



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko azaroaren 12a

105. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasibo-
ei buruzkoa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nekazaritza azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeari beste xeda-
pen gehigarri bat eransten diona (28. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Hortz-protesigileen Elkargo Ofiziala sortzekoa. Akats zuzenketa
(29. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoa berriz muga-
tzeari buruzkoa (30. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, herritarrek interes sozialeko “beste xedeetarako” edo eliza katolikorako bideratzen duten
kuota osoaren erabilerari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina
(34. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa premiatzen da Aitzoaingo kuarteleko tiro-poligonoa itxi
dezan, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (35. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aitzoaingo tiro-eremua desagertarazteko
urratsak eman ditzan, foru parlamentari Joxe Pernando Barrena Arza, Martín Arbizu Goñi, Igor Arroyo
Leatxe, Shanti Kiroga Astiz, Aurkene Ortiz Egizabal, Mariné Pueyo Danso eta Félix Puyo Rebollo jaun-
andreak aurkeztua (36. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa premiatzen da Aitzoaingo kuartel militarra kentzeko, foru
parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (37. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, erresonantzia magnetikoa egiteko itxaron zerrendei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (39. or.).
- Galdera, hedabideetan euskara erabiltzeko laguntzetarako deialdi publikoa ez egiteari buruzkoa, foru parlamentari Félix Puyo Rebollo jaunak egin (40. or.).
- Galdera, euskarari buruzko Foru Legeak definituriko lurralde-eremuen arabera, errepideetako kontserbazio programen barruan eginiko jarduketei buruzkoa, foru parlamentari Félix Puyo Rebollo jaunak egin (40. or.).
- Galdera, Navarra de Gestión para la Administración (NGA) enpresa sortzeari eta TRACASA saltzeari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egin (41. or.).
- Galdera, Nafarroako familiak babesteko politikari buruzkoa, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak egin (42. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraientza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko urriaren 28an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraituz tramitatzea.

2.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordearen esku uztea.

3.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2002ko abenduaren 2ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

-1-

Foru Lege honen aurrekariak eta justifikazioa

Foru Diputazioak 1931ko martxoaren 10eko Erabakiaren bidez Foru Diputazioko Zahar-sari eta Pentsioen Erregelamendua onetsi zuen, zeinak ezarri zuen gaur egun Foru Komunitateko funtzionarioentzat indar duen eskubide pasiboen araubidea.

Ondoren, Foru Kontseilu Administratiboak, 1947ko maiatzaren 31ko Erabakiaren bidez, Nafarroako udaletako funtzionarioen eskubide pasiboen erregelamendua onetsi zuen, zeinak finkatu zuen orain arte Foru Komunitateko toki entitateetako funtzionarioei aplikatu izan zaien eskubide pasiboen sistema, salbu eta Iruña, Tafalla eta Tuterako udalekoentzat, horiek beren montepio propioak baitituzte eta gai horren gaineko beren araubide berariazkoa, udal horietako funtzionarioei aplikatzekoa.

Martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legeak, zeinak arautzen baitu Nafarroako administrazio publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua, finkatu zuen zer lansari sistema eta zer maila sistema aplikatuko zitzaizkien –eta gaur ere hala da– administrazio publikoetako zerbitzu aktiboko funtzionarioei, hau da, bost mailako sistema bat: A, B, C, D, eta E, zein bere hasierako soldatarekin.

Aipatu martxoaren 13ko 13/1983 Foru Legeak bere lehenbiziko xedapen iragankorreko bigarren idatz-zatian finkatu zuen, haren arauak garatu eta aplikatzeko erregelamendu xedapenak onesten ez ziren artean, indardun segituko zutela xedapen horien xede ziren gaiak garai hartan arautzen zituztenek; hirugarren xedapen iragankorren

agindu ere zuen, eskubide pasiboen gainean, foru legearen garabidean onetsi behar zen eskubide pasiboen erregelamenduak indar hartzen ez zuen artean, jubilazioek delako Legea onetsi zenean indardun ziren xedapenak izanen zituztela jarraibide; hau da, kasuko araudiak indar hartu artean, aktiboko lansarien sistemak eta eskubide pasiboenak elkarrekiko lotura galtzen zuten, zeren montepioetan sartutako funtzionarioek aktiboan zaudela jasotzen zituzten lansariek ez baitzuten balio beren hartzeko pasiboak seinalatzeko, horiek 1983 baino lehenagokoak baitziren artean ere.

Ekainaren 23ko 9/1992 Foru Legeak (1992ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa), finkatu zuen 1992ko urtarrilaren 1etik aurrera Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan sartzeko ziren funtzionarioei Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean alta eman eta, hala bazegokion, afiliatuko zirela.

Horrez gain, abenduaren 30eko 13/1993 Foru Legeak (1994ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa) beste hainbeste finkatu zuen Foru Komunitateko toki entitateetan sartu berriko funtzionarioen kasurako.

Arau horiek, bada, itxi zieten funtzionario berriei Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan sartzeko bidea, eta beraz lehendik hor ziren funtzionarioek "itzali" beharreko taldea osatu zuten aurrerakoan: gaur egun 3.287 funtzionario Foru Komunitateko administrazioetakoak eta 1.205 toki administrazioetakoak. Orduantxe hasi zen administrazioa, gainera, montepioetako finantza-aurrekontuetan teknikariek epe ertainari begira iragartzen zuten krisi larri-larriko soluzio baten bila.

Foru lege honetan ezartzen den eskubide pasiboen sistema berriak (printzipioz "itzali" beharreko langile talde horri soilik aplikatzekoa), aktiboko lansarien sistema eta eskubide pasiboen artean esan bezala dagoen lotura-falta konpondu nahi du, Gizarte Segurantzaren antzeko sistema bat ezarriz, zeinean pentsioak kalkulatzeari begira aktiboan jasotzen ziren lansariak hartzen baitira aintzat, nahiz eta zenbait muga gehieneko egon, beste sistema horretan bezalaxe.

-2-

Foru legearen edukia eta haren alderdi aipagarrienak

Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko foru lege honetan ezartzen den eskubide pasibo-

en araubideak honako zutabe nagusi hauetan oin hartzen du:

1. Gizarte Segurantza zolatzen duten printzipio oinarriko berberak ditu.

2. Foru lege honen aurreko Nafarroako Foru Komunitateko montepio sistemaren zenbait berezitasun gordetzen ditu.

I. tituluak eskubide pasiboen sistema berriko arau orokorrak dauzka. Ezartzen du Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioak soilik egonen direla haren eraginpean.

II. tituluak eskubide pasiboen sistema berrian kotizatze arauak ezartzen ditu, eta kotizazio tipo bakarra finkatzen, kotizazio oinarriaren % 5,1ekoa, Gizarte Segurantzaren erabiltzen dena baino goitixeagokoa (%4,8).

Kotizazio oinarriari dagokienez -erreferentzia baitira pentsioen erregulazio oinarriak finkatzeko, eta azken batean haien zenbatekoa kalkulatzeko-, foru legean hartarako ematen diren arauak bat datoz funtsean Gizarte Segurantzako araubidean begiratzen direnekin kotizazio oinarria nola finkatu eta oinarri horiei gehieneko eta gutxieneko muga nola jarri bezalako gaitetan, horretarako baliokidetzatza bat ezarririk Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen mailakatze sistemaren eta Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko kotizazio taldeen artean.

III. tituluak, lehenbizirik, eskubide pasiboen sistema berriko prestazioak aipatzen dira, hots, oro har, Gizarte Segurantzako sistemak ematen dituen berberak.

Ondoren hainbat muga ezartzen dira pentsioen hasierako zenbatekorako eta pentsioak gaurkotzeko. Muga horiek Gizarte Segurantzako eremu orokorrean erabiltzen direnak dira. Agintzen da jubilazio pentsioak eta alargun pentsioak mantendu behar direla, foru lege honen aurreko montepioetako eskubide pasiboen sistemari izaten ziren jarraibideen arabera.

Titulu honetako II. kapituluak jubilazio pentsioak erregulatzen dira. Hona alderdirik aipagarrienak:

1. Nahitaez jubilatzeko adina 65 urtekoa izanen da, montepioetako eskubide pasiboen aurreko sistemari ez bezala, 70 urtekoa baitzen. Aukera ezartzen da 70 urte bete arte aktiboan irauteko, salbu eta jubilazio arau berariazkoen peko lanpostuetan izendaturik daudenen kasuan. Zerbitzu aktiboan 65 urtetik aurrera segituz gero, erregulazio oinarria 100eko 100etik gorakoa izan ahalko da.

2. Gizarte Segurantzako sisteman bezala, jubilazio pentsioen erregulazio oinarria kalkulatzeko, funtzionarioaren azken 15 urteetako kotizazio oinarriak hartuko dira aintzat, salbu eta ezintasunaren kausazko zenbait jubilazio kasutan, eta aplikatzeko eskala sistema hartako berbera izan den delat, halatan non 35 urteko kotizazioa eginik, jubilazio pentsioa % 100ekoa izan den.

3. Aukera ezartzen da 60 urte beterik eta 35 urte kotizaturik nahi duena jubilatu ahal izateko, jubilazio pentsioaren portzentajeari koefiziente murrizgarriak aplikatu gabe, betiere baldin kotizatutako 35 urte horiek administrazio publikoetan emandako zerbitzuak badira, Gizarte Segurantzaren ez bezala, hor beti aplikatzen baitira koefiziente murrizgarriak.

4. Ezintasunaren ondoriozko jubilazioari dagokionez, eskubide pasiboen sistema berriak hainbat berezitasun ditu Gizarte Segurantzako sistemaren aldean, foru lege honen aurreko montepio sistemaren zenbait ezaugarri gordetzen baitira.

Lehenbizi, ez da ezaldirik eskatzen ezintasun iraunkorren ondoriozko jubilazio pentsioentzat, Gizarte Segurantzako sisteman ez bezala, hor bai eskatzen baitira.

Bestalde, finkatzen da ezintasun iraunkor osorearen ondorioz jubilatu den funtzionarioari, kotizatutako urteen arabera tokatzen zaion jubilazio portzentajeari handiagoa bada ezintasun horretarako aurreikusten dena baino, kotizazio urteengatik tokatzen dena emanen zaiola.

III. tituluko III. kapituluari dagokionez, (ezintasun iraunkor partzialaren eta elbarrizterik gabeko lesio iraunkorren ondoriozko kalte-ordainei buruzkoa), diferentzia aipagarri bakarra da sistema berriari funtzionarioek ezintasuna lan istripu edo lan eritasun baten ondoriozkoa denean baizik ez dutela kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izan, Gizarte Segurantzako sisteman ez bezala, hor ezintasun iraunkor partzialaren egoeran daudenean beti baitute eskubidea kalte-ordaina jasotzeko, zein ere den ezintasuna sortu dien arrazoia.

III. tituluaren IV. kapituluari hiltzearen eta bizi-irautearen ondoriozko prestazioak arautzen dira. Hona alderdirik aipagarrienak:

1. Ez da ezaldirik eskatzen hiltzearen eta bizi-irautearen ondoriozko prestazioak jasotzeko eskubidea izateko, Gizarte Segurantzaren ez bezala, hor eskatzen baitira.

2. Alargun pentsio bizi artekoaren portzentajeari, umezurtz pentsiorako eskubidea duen umerik ez delarik, gutxienez 100eko 40 eta gehienez

100eko 55ekoa izan den da, pentsio-sortzaileak zenbat urteko kotizazioa eginik zuen.

Aurreikuspen honek alde egiten dio Gizarte Segurantzako sistemakoari, hartan alargun pentsioa portzentaje beti-batekoa baita (oro har % 46koa, eta kasu bakan batzuetan % 70ekoa). Hori, foru lege honen aurreko montepio sistemaren ondorioa da, hartan kotizatutako urteek eragiten baitote alargun pentsioaren portzentajeari.

Umezurtz pentsioei eta familiakoentzako pentsioei dagokionez, Gizarte Segurantzaren bezalakoak dira, salbu eta familiakoentzako pentsio horiek alargun edo umezurtz pentsioa nork jasorik ez dagoenean sortzen diren kasuetan, Gizarte Segurantzako sisteman ez bezala, hor zilegi baita pentsio horien aldi berean sortzea familiakoentzako pentsioak ere.

Azkenik, foru lege honen eraginpeko funtzionarioei eskubidea aitortzen zaie eskubide pasiboen aurreko sisteman iraun ala berriari sartu hautatzeko, eta ildo horretatik foru legeko bigarren xedapen iragankorrean 6 hilabeteko epea ezartzen da montepioetan dauden aktiboko funtzionarioek, hala nahi badute, eskubide pasiboen aurreko sisteman irautea hauta dezaten.

I. TITULUA

Eskubide pasiboen sistemako arau orokorrak

1. artikulua. Legearen helburua eta haren eraginpeko pertsonak.

1. Foru lege honen bidez, Nafarroako administrazio publikoetako montepioek segurtatu egiten dizkiete hurrengo idatz-zatian aipatzen diren langileei, berentzat nahiz beren familiakoentzat sortzen dituzten prestazioak, legean bertan ezartzen den eskubide pasiboen sistemaren arabera.

2. Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan dauden langile funtzionarioak hartzen ditu bere eraginpean foru lege honetan aurreikusten den eskubide pasiboen sistemak.

3. Eskubide pasiboen sistema honen eraginean kanpo egonen dira Nafarroako administrazio publikoaren langile funtzionario Gizarte Segurantzako araubide orokorrean eta Estatuaren klase pasiboetakoan afiliatuak.

2. artikulua. Sistemaren zer-nolakoak.

Eskubide pasiboek ez dute preskribitzen, nahiz eta, eskubideak aitortzerakoan, kontuan hartuko diren hurrengo artikuluan aurreikusten diren iraungitze epeak.

3. artikulua. Eskubideok nola erabili.

Zilegi izanen da prestazioa aitortzeko eskubidea erabiltzea eskubidea sortu duen gertaeraz geroko edozein momentutan. Hala ere, sortu eta biharamunetik bost urte iragan ondoren erabiltzen bada eskubidea, haren ondorio ekonomikoak kasuko eskaera aurkeztu eta biharamunetik baizik ez dira hasiko.

Orobat, prestazioa hartzeko eskubidea interesatuari egozteko moduko arrazoi batengatik ezin aitortu bada, eskubidea erabili eta biharamunetik bost urtean, eskaerak sortu dituen eskubide guztiak iraugiko dira, eta eskubidearen ondorio ekonomikoak ez dira hasiko interesatuak berari egotzen ahal zaizkion akatsak zuzendu eta biharamunetik baizik.

4. artikulua. Erabiltzearen ondorengotza.

1. Baldin eta eskubide bat aitortzeko prozedura administratiboa erregelamenduak ezarri bezala hasi ondoren interesatua tramitazioak irauten duen artean hiltzen bada eta bidezko partedun batek aurrera egiteko eskatzen badu, prozedura bukatu eginen da kasurako bide den deklarazioa eginaz, eta hala tokatzen bada, herentziadunei ordainduko zaizkie sortzen diren diru-kopuruak.

2. Prestazio baten hartzailea hiltzen denean, prestazioa osatzen duten hartzekoak, sortuak baina jaso gabekoak, herentziadunei ordainduko zaizkie, partedun bidezko batek hala eskatzen badu.

3. Aurreko bi atalek aipatzen dituzten kasu bietako edozeinetan, eskaera bost urteko epean egin beharko da, interesatua hil eta biharamunetik kontatuta. Epeburu hori iragan delarik, eskubideak preskribituko du.

5. artikulua. Bidegabeki jasotako prestazioak itzuli beharra.

1. Foru lege honetan arautzen den eskubide pasiboen sistemako prestazioen hartzaileek bidegabeki jaso dituzten diru-kopuruak, berek edo beren eskubidedunek itzuli beharko dituzte.

Prestazioa pentsio bat delarik eta bidegabeko dirutzen hartzaileak oraindik pentsioa kobratzen segitu behar badu, zilegi izanen da zor hori pentsioaren hurrengo hilekoetatik pagatzea, erregelamenduz hartarako ezartzen den moduan.

2. Norbaiten egintzak edo egintza ezak lagundu badu diru-kopuru bat bidegabeki kobratzen, bera izanen da itzuli beharraren erantzule subsidiario.

6. artikulua. Prestazio bateraezinak.

1. Norbaitek bi edo gehiago pentsio kobratzeko eskubidea badu, bateraezinak, zilegi izanen du bietatik nahiago duena kobratzea hautatzea. Eskubide hori behin baizik ezin izanen da erabili.

Hala ere, xedapen orokorrak aplikatzearen ondorioz bateraezineko pentsio horietako baten zenbatekoa aldatzen bada, zilegi izanen da hautatzeko eskubide hori berriro erabiltzea, aldiko behin soilik.

2. Pentsio bat jasotzea eta lan pertsonalaren irabaziak izatea bateraezinak badira, eten eginen da pentsioaren pagua jasotzailea lanetik gelditu arte.

7. artikulua. Zerbitzutik bereizita dauden langile funtzionarioen eskubide pasiboak.

1. Zerbitzutik bereizita dagoen funtzionarioak ez ditu jasoko ordu arte beretzat nahiz bere familiakoentzat sortu dituen eskubide pasiboak.

2. Artikulu honek aipatzen dituen funtzionarioek sortu dituzten eskubide pasiboak beti partedun batek hala eskatuta aitortuko dira, behin frogatu delarik kasuan-kasuan eskatzen diren baldintzak betetzen direla.

8. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.

Arau-hauste eta zehapenetarako, unean-unean Gizarte Segurantzako eremuan arau-hauste eta zehapenetarako indar duen araudia hartuko da aintzat.

II. TITULUA**Eskubide pasiboen sisteman kotizatzea.****I. KAPITULUA****Xedapen orokorrak****9. artikulua.** Kotizatzeko obligazioa

1. Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan kotizatzaera beharturik daude, foru lege honetan ezartzen diren arauen arabera, bertan sarturik dauden funtzionarioak.

2. Nafarroako administrazio publikoek deskontatu eginen diete beren funtzionarioei, lansariak pagatzerakoan, bakoitzari kotizazioztat tokatzen zaion zenbatekoa.

10. artikulua. Kotizatzeko obligazioa nola sortzen den eta zenbat irauten duen.

1. Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan dauden funtzionarioak, zerbitzu aktibokan badaude eta foru lege honetan ezartzen den eskubide pasiboen sisteman alta emanik, admi-

nistrazio egoera horretan dirauten artean beharturik daude kotizatzaera.

2. Kotizatzaera beharturik daude, halaber, Nafarroako administrazio publikoetako montepioetako funtzionarioak ere, zerbitzu berezietan, eszendentzia berezian edo behin-behinekoz eginkizunez gabeturik badaude.

Aurreko idatz-zatian agindutakoa gorabehera, ez dute kotizatzeke obligaziorik izanen zerbitzu berezietan dauden eta beste gizarte aurreikuspeneko sistema batean egoera administratibo hori sortu dien lanpostu edo karguagatik altan dauden funtzionarioek.

11. artikulua. Kotizazio tasa.

Kotizazio tasa bakarra izanen da funtzionarioaren kargura, kotizazio oinarriaren % 5,1ekoa hain zuzen. Kotizazio horretan sartzen dira bai foru lege honetan aipatzen den ez-uste eta egoeretarako aportazioari eta bai Erabilera Berezia delako modalitateko osasun laguntzaren prestazioari dagokiona.

12. artikulua. Kotizazio oinarria.

1. Kotizazio oinarria funtzionarioak hilean jasotzen duen lansari osoa izanen da.

Honako lansariak ez dira kontatuko kotizazio oinarrian:

a) Gizarte Segurantzako araudian aurreikusten den moduan, zerbitzuagatik, bidaiak egiteagatik edo nahitaezko lekualdaketaren ondorioz bizilekuz aldatzeagatik egindako gastuen alderako ordainak.

b) Famili laguntza.

c) Aparteko orduen alderako sariak.

2. Zerbitzu aktiboko funtzionario batek soldatarik gabeko baimen bat hartu badu, kotizazio oinarria baimen hori hartu ez balu tokatuko zitzaiona bera izanen da.

3. Funtzionario bat zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian badago, kotizazioaren oinarria kalkulatzeko, egoera horretan hasi aurreko 12 hiletako oinarrien batez bestekoa egingen da, eta oinarri hori urtero gaurkotuko da bide den heinean. Betiere oinarria inoiz ez da izanen haren lanpostuaren mailari dagokion gutxieneko muga baino gutxiagokoa.

Aurreko idatz-zatian agindutakoa gorabehera, zerbitzu berezietan dagoen funtzionario horrek Nafarroako edozein administrazio publikotatik, haren menpeko entitate batetik edo Nafarroako Foru Komunitateko beste edozein instituzio publi-

kotatik jasotzen badu bere soldata, haren kotizazio oinarria benetan jasotzen duen lansaria izanen da, artikulua honetako lehen idatz-zatiko bigarren lerroaldean agintzen dena aplikatzea ezertan galarazi gabe.

13. artikulua. Kotizazio oinarrien gutxieneko eta gehieneko muga.

Kotizazio oinarriek gutxieneko eta gehieneko mugak izanen dituzte maila bakoitzerako, urteko Gizarte Segurantzako Araubide Orokorretarako kotizazio taldeentzat ezartzen direnen parekoak, honela:

Maila	Kotizazio taldea
A	1
B	2
C	5
D	7
E	6

14. artikulua. Kotizazio oinarria nola finkatu.

Hilabete bakoitzari zer kotizazio oinarri dagokion finkatzeko, honako arauak aplikatuko dira:

1. Kotizazioa zein hilabeteri dagokion, hartan sortutako lansaria kontatuko da.

Honako lansariak ez dira kontatuko kotizazio oinarrian:

a) Gizarte Segurantzako araudian aurreikusten den moduan, zerbitzuagatik, bidaiak egiteagatik edo nahitaezko lekualdaketaren ondorioz bizilekuz aldatzeagatik egindako gastuen alderako ordainak.

b) Famili laguntza.

c) Aparteko orduen alderako konpentsazioa.

2. Aurreko arauaren arabera kontatutako lansariari ezarritako paga apartekoen parte proportzionala erantsiko zaio eta bai hilerio baino maizago sortzen diren edo sortze epe jakinik ez duten beste lansari guztiena ere.

3. Aurreko arauen arabera ateratzen den kotizazio oinarria ez bada sartzen funtzionarioaren mailari dagokion gehieneko eta gutxieneko oinarrien artean, gutxieneko ala gehieneko oinarriaren arabera kotizatuko da, kotizazio oinarria nola ateratzen den: gutxienekoa baino gutxiagokoa edo gehienekoa baino gehiagokoa.

15. artikulua. Aparteko orduen alderako emendiozko kotizazioa.

1. Funtzionarioek aparteko orduen aldera jasotzen duten lansariagatik emendiozko kotizazio bat

eginen da, zeina ez baita kontatuko prestazioen erregulazio oinarria kalkulatzeko.

2. Aparteko orduen alderako emendiozko kotizazioari foru lege honetako 11. artikuluan oro har aurreikusten dena aplikatuko zaio.

16. artikulua. Kuoten likidazioa.

1. Kotizazio oinarrian sartuta dauden eta hileroko sortzen diren lansari kotzeptuei dagozkien kuoten likidazioa, kuota sortu zen hilari egotziko zaio, likidazioa zein ere hiletan egiten den.

2. Kotizazio oinarrian sartuta dauden eta hila-betea baino luzeagoko epeetan sortzen diren edo sortze epe jakinik ez duten eta kasuko ekitaldi ekonomikoan ordaintzen diren lansari kotzeptuei dagozkien kuoten likidazioa, proportzionalki banatuko da ekitaldi hartako hileroko likidazioetan.

3. Kotizazio oinarrian sartuta dauden lansari kotzeptuen parte proportzionaleri –jadanik likidatutako hilei dagozkienei–, eta bai oinarrien, tipoen edo kuoten berberen gehikuntzei ere –atzerako indarra izan behar dutenei–, osagarrizko likidazioak eginen zaizkie, banaka zerrendatuz hil bakoitzeko kotizazio oinarriak segun eta lansariok dagozkien hiletan zer oinarri, muga, tipo eta beste baldintza zeuden indarrean.

Era berean likidatuko dira, hala tokatzen bada, osorik nahiz partez aurretik ezin kalkulatu ziren lansariak, artikulua honetako bigarren artikulua aipatzen duen banaketa proportzionala egiteko.

17. artikulua. Bidegabezko kotizazioen sarra.

Legez tokatzen den baino gehiagoko nahiz gutxiagoko kotizazioen sarrera egiteak ez du inolako eraginik izan kasuko pentsioa kalkulatzera-koan, eta interesatuak edo, hala tokatzen bada, administrazioak kasuko diru-kopuruak erreklamatzeko duen eskubideak bere hartan iraunen du.

II. KAPITULUA

Kotizazio bereziko kasuak

18. artikulua. Borondatezko eszedentzian edo eginkizunez gabeturik dauden langile funtzionarioen kotizazioa.

1. Interes partikularreko borondatezko eszedentzian edo eginkizunez gabeturik dauden langile funtzionarioek aukera izanen dute eskubide pasiboaren sistema honetan segitzeko bertan aurreikusten direnak estaltzeko, non eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batean alta hartzen ez duten, eta kasuan-kasuan behar diren kotizazioak egin beharko dituzte.

2. Aukera hori erabiltzeko epea laurogeita hamar egun naturalekoa izanen da, funtzionarioa aurreko idatz-zatian aipatu egoeretako batera pasatzen den egunetik kontatuta eta kotizazio bereziaren eraginak epe horren hasiera uneraino atzeratuko dira.

3. Kotizazio tipoa foru lege honetako 11. artikuluan oro har aurreikusten dena izanen da.

4. Artikulu honetan aurreikusten diren kasuetan funtzionarioaren kotizazio oinarria kalkulatzeko, kotizazio berezia sortzen duen egoeran hasi aurreko 12 hiletako oinarrien batez bestekoa egiten da, eta oinarri hori urtero gaurkotuko da bide den heinean. Betiere oinarria inoiz ez da izan haren lanpostuaren mailari dagokion gutxieneko muga baino gutxiagokoa.

5. Kuota, dagokion hilabetearen hurrengo hilabetean sartuko da.

6. Artikulu honetan aurreikusten diren kasuetako kotizazioak ondorio bakarrerako kontatuko dira: finkatzea zein izan den erregulazio oinarria eta zein portzentaje aplikatu beharko zaion berari kasuko pentsioa kalkulatzeko. Ezaldia finkatzeko, berriz, ez dira kontatuko.

7. Kotizazio bereziak egiten dituen funtzionarioak honako arrazoi hauetako batengatik galduko du eskubide pasiboaren sistema honetan segitzeko eskubidea:

a) Hurrenez hurrengo hiru hiletako kuotak ez pagatzeagatik.

b) Hiltzeagatik.

c) Berak hala erabakita eta kasuko montepioari idatziz adierazita.

d) Gizarte aurreikuspeneko beste sistema batean alta hartzeagatik.

e) Lanpostuaren erreserbarako eskubidea galtzeagatik, interes partikularreko borondatezko eszedentzien kasuan.

19. artikulua. Lanaldi murriztua edo aldi bateko ezintasuna duten langileen kotizazioa.

1. Lanaldi murriztua duten funtzionarioek edo aldi bateko ezintasun egoeran egon eta gai horretako arauak hala aginduta beren lansari murrizketa portzentuala egiten zaien aukera izanen dute kotizazio oinarriak mantentzeko aipatu lansari murrizketa egin ez balitzaie tokatuko zitzaizkien zenbatekoan.

Aukera hori, betiere, lansari murrizketak ondorio izaten hasteko eguna baino lehen erabili beharko da.

2. Funtzionario batek lehenbizi kotizazio oinariak mantentzea aukeratu eta ondoren aukera hori ezeztatu nahi badu, hala eman beharko du aditzera idatziz eta eraginak adierazpen horren hurrengo hilabetean hasiko dira.

III. TITULUA

Eskubide pasiboen sistemako prestazioak

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

20. artikulua. Prestazio motak.

1. Foru lege honen eraginpeko funtzionarioek, berentzat edo beren familiakoentzat, hurrengo artikuluetan arautzen diren prestazioak sortuko dituzte, testu honetan ezartzen diren baldintza eta moduetan.

2. Berentzat honako prestazioak sor daitezke:

- a) Bizi arteko pentsioak nahitaezko, borondatezko edo ezintasunaren ondoriozko jubilaziorako.
- b) Kopuru finkatuko kalte-ordainak ezintasun iraunkor partzialaren eta elbarrizterik gabeko lesio iraunkorren kasuetarako.

3. Familiakoentzat, hiltzeagatik eta bizirik irauteagatik, honako prestazioak sor daitezke:

- a) Bizi arteko alargun pentsioak.
- b) Umezurtz pentsioak.
- c) Familiakoentzako pentsioak.

21. artikulua. Prestazioak sortzea.

Foru lege honetan arautzen diren prestazioak honela sortuko dira:

- a) Jubilazio pentsioak, funtzionarioa jubilatuta eta hurrengo hilabeteko lehenbiziko egunetik.
- b) Ezintasun iraunkor partziala edo elbarrizterik gabeko lesio iraunkorrek deklaratu direnetik, horietarako aurreikusten diren kopuru finkatuko kalte-ordainen kasurako.

c) Pentsioa sortu duena hil eta hurrengo hilabeteko lehenbiziko egunetik, alargun eta umezurtz pentsioen kasuan.

d) Familiakoentzako pentsioetan, eskubidea sortu duena hil eta hurrengo hilabeteko lehenbiziko egunetik, ezkontide alargunik edo umezurtz pentsioa kobratzeko legezko eskubidea duen umezurtzik ez dagoen kasuetarako, edo alarguna edo, halakorik badago, umezurtz pentsiodun umezurtzak hil edo lege gaitasuna galdu eta hurrengo hilabeteko lehenbiziko egunetik.

22. artikulua. Prestazioen pagamendua.

1. Pentsioen urteko diru-kopurua hileroko pagatuko zaie hartzaileei, hamalau pagaldi berdinetan, haietako hamabi arruntak eta bi apartekoak. Apartekoak ekainean eta abenduan emanen dira.

Aurreko lerroaldeak agintzen duena ezertan galarazi gabe, pentsio aitortua hasi eta lehendabiziko aparteko pagaldian, paga osoaren seiren bat emanen da pentsioaren eraginak hasten diren hilabeteko lehen egunetik uztailaren 30era edo abenduaren 31ra arte dagoen hilabete bakoitzeko.

Orobat, pentsioduna hiltzen bada, azkena jaso den aparteko pagaren hurrengo paga ulertuko da hiltzea gertatzen den hilabeteko azken egunean sortu dela, eta, pentsioko azken hileko osoarekin batera pagatuko da, oraindik pagatzeko baldin badago, sortutako eta jaso gabeko hartzeko gisa eta proportzio honetan: paga osoaren seiren bat ohiz-gaineko paga hori sortzen den egunetik aurreko uztailaren 30era edo abenduaren 31ra dagoen hilabete bakoitzeko.

2. Kopuru finkatuko kalte-ordainak ezintasun iraunkor partzialaren eta elbarrizterik gabeko lesio iraunkorren kasuan, pagaldi bakarrean emanen zaizkie hartzaileei.

23. artikulua. Prestazioen atxikipena eta bahikuntza.

Prestazioei ez zaie atxikipenik eginen, honako bi kasuetan izan ezik:

- a) Ezkontide eta seme-alabenganako elikadura eginbeharrak betetzeko.
- b) Bidegabeki jasotako diru-kopuruak itzuli beharri begira, foru lege honetako 5. artikuluko aurreikusten duenarekin bat.

Bahikuntza kasuetarako Auziperatze Zibilaren Legeak agintzen duena hartuko da aintzat.

24. artikulua. Birritako estaldura galaraztearen printzipioa.

Beretako edo bere familiakoentzako pentsioa sortzen duen funtzionarioak, foru lege honetako eskubide pasiboen sistemaren arabera, gainera Gizarte Segurantzako beste edozein araubidetan ere sortzen badu, hori dena zerbitzu emate bakar baten ondorioz, hautatu beharko du bietatik zein pentsio hartu nahi duen, eta ez da zilegi izanen biak hartzea.

25. artikulua. Pentsioen hasierako zenbatekoaren mugak, pentsioen gaurkotzea eta gutxieneko pentsioak.

1. Foru lege honetako eskubide pasiboen sistemaren arabera hartzaile bakoitzak sortutako edozein pentsioen hasierako zenbatekoa, bere buruz edo, halakorik bada, hartzaile berak jasotzen dituen beste pentsio publikoena gehiturik, ez da izanen ekitaldi ekonomiko bakoitzean Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko pentsioetarako ezartzen den urteko muga gehienekoa baino gehiagokoa.

Pentsio bat baino gehiago biltzen direnean, zenbatekoa finkatzeko, Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean urtero pentsio publikoak hasiera batez seinatzeko mugei buruz ematen diren arauak hartuko dira aintzat.

2. Pentsioen zenbatekoa urtero gaurkotuko da Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legeak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako ezartzen duen portzentajea.

3. Foru lege honetako eskubide pasiboen sistemaren arabera sortutako pentsioen urteroko gaurkotzea gehiturik ere ez da zilegi izanen pentsioen urteko zenbateko osoak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko pentsioentzat jarritako gehieneko kopurua gainditzea, gehi, halakorik bada, titularrak jasotzen dituen beste pentsio publikoen urteko zenbateko oso balioberritua.

Pentsio bat baino gehiago biltzen diren kasuetan, gaurkotzea egiteko, Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean pentsio publikoak hantitzeko mugei buruz urtero ematen diren arauak hartuko dira aintzat.

4. Jubilazio pentsioen hartzaileek eskubidea izanen dute gutxieneko pentsio bat jasotzeko, E mailako Nafarroako administrazio publikoko aktiboko funtzionarioen hasierako soldata adinakoa, salbu eta altan ez egotearen egoeratik jubilatzen direnek, horiek foru lege honetako 34 eta 35. artikuluetako arauak aplikatzearen ondorioz tokatzen zaien pentsioa jasoko baitute.

5. Alargun pentsioen hartzaileek gutxieneko pentsio bat jasotzeko eskubidea izanen dute, Lanbidearteko Soldata Gutxienekoaren betekoa. Alargun pentsio partekatuen kasuan, pentsio hori hartzaile guztien artean partituko da kasuko banatze arauen arabera.

Aurreko idatz-zatian xedatu dena umezurtz pentsioei ere aplikatuko zaie, haien hartzaileak guraso bien umezurtza bada. Kasu horretan, umezurtz pentsioa kobratzeko eskubidea umezurtz batek baino gehiagok badute, gutxieneko pentsioaren zenbatekoa umezurtz pentsioen hartzaile guztien artean partituko da.

II. KAPITULUA Jubilazio pentsioak

1. atala Xedapen orokorrak

26. artikulua. Pentsioak sortzen dituen gertaera.

Kapitulu honetan arautzen diren pentsioak foru lege honen eraginpeko funtzionarioak jubilatzeak sortzen ditu.

Honako jubilazio motak izanen dira:

a) Nahitaezkoa. Berainik deklaratu da funtzionarioak legez jubilatzeko mugatzat jarritako adina betetzen duenean, foru lege honetako 32. artikulua ezartzen duen salbu-kasuarekin.

b) Borondatezkoa. Parte batek hala eskatuta deklaratu da, betiere interesatuak hirurogei urte bete eta hogeita hamabost kotizazio urte egin baditu.

c) Ezintasun iraunkorraren ondorioz. Ofizios edo parte batek hala eskatuta deklaratu da, foru lege honetan ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor partzial eta erabatekoaren kasuetarako aurrekusten dena ezertan galarazi gabe.

27. artikulua. Jubilazio pentsioak hartzeko eskubidearen baldintzak.

Funtzionarioek jubilazio pentsioak hartzeko eskubidea sortuko dute baldin, norbere pentsio motarentzat eskatzen diren baldintza partikularrez gain, baldintza orokor hau betetzen badute: gertaera edo egoera babestua agitzen denean foru lege honetako eskubide pasiboen araubidean alta hartuta edo altaren balio berekotzat jotako egoera batean egotea.

Halaber, jubilazio pentsioak hartzeko eskubidea sortuko dute, baldin foru lege honetako eskubide pasiboen araubidean altan edo balio bereko egoeran ez daudelarik ere nahitaezko jubilaziorako eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

28. artikulua. Altaren balio bereko egoerak.

Honako administrazio egoerek izanen dute altaren balio bera: zerbitzu bereziak, eszedentzia berezia edo behin-behineko eginkizun-gabetzea.

Orobat, funtzionario bat interes partikularreko borondatezko eszedentzian edo eginkizunez gabeturik egon eta foru lege honetako 18. artikulua arabera eskubide pasiboen sistema honetan irautea hautatu badute, egoera hori ere altaren balio berekotzat joko da.

29. artikulua. Zerbitzu aitortuak.

1. Foru lege honetan arautzen den eskubide pasiboan sistemak agintzen dituenak betetzeko, honakoak hartuko dira zerbitzu urte aitortutzat:

a) Funtzionarioa Nafarroako Foru Komunitateko kasuan kasuko montepioan altan egondako urteak, kasuko administrazio publikoan zerbitzu aktiboan zegoelako.

b) Funtzionarioa eskubide pasiboan sisteman aurreko artikuluko lehen lerroaldean altaren balio berekotzat eman diren egoeretako batean egondako urteak.

c) Nafarroako kasuko administrazio publikoak funtzionarioari aitortu dizkion urteak, zerbitzuak aitortzeko araudiaren arabera.

2. Aurreko idatz-zatian agindutakoa gorabehera, funtzionarioa behin-behineko eginkizunez gabeturik badago eta gabetze hori irmotzen denean, egoera horretan egoten den aldia ez da kontatuko zerbitzu aitortuko alditzat ezaldia kalkulatzeari begira.

30. artikulua. Gizarte Segurantzako kotizazioak.

1. Foru lege honen eraginpeko funtzionarioek eskubidea izanen dute, beren eskubide pasiboan kontaktetan Gizarte Segurantzako edozein araubidetan dituzten kotizazioaldiak sartzeko, betiere aldi horiek ez bazaizkie gaintzen administrazio publikoari emandako zerbitzutzat aitortu diren beste batzuei.

2. Ez da kontatuko Gizarte Segurantzako edozein araubidetan funtzionarioek egindako kotizazio aldirik, baldin eta aldi horiek, beste gehiagorik badago haiek ere gehiturik, araubide horietan pentsio eskubidea sortzen bazuten, salbu eta delako aldiek Zahartzaroko eta Elbarritasuneko Nahitaezko Aseguruaren (SOVI) prestazioak izateko eskubidea sortzen badute, orduan bai, kontatuko baitira.

2. atala

Nahitaezko jubilazioa

31. artikulua. Nahitaezko jubilazioaren adina.

Nafarroako administrazio publikoko Funtzionarioen nahitaezko jubilazioa ofizioz deklaratuako da hirurogeita bost urte betetzen dituztenean, hurrengo artikuluan ezartzen den salbu-kasuarekin.

32. artikulua. Zerbitzu aktiboko aldia luzatzea.

1. Nahitaez jubilatzeko adina bete eta funtzionario batek zerbitzu aktiboan gehiago iraun nahi badu, zilegi izanen du hala egitea gehienez ere

hirurogeita hamar urte bete arte, non eta berariazko jubilazio arauen mendeko lanpostu batean izendaturik ez dagoen.

2. Zerbitzu aktiboan gehiago iraun nahi duen funtzionarioak hala eskatu beharko dio idatziz lan egiten dueneko administrazio publikoari, hirurogeita bost urte beteko dituen eguna baino gutxienez bi hilabete lehenago, eta eskaera ezin izanen da ukatu, interesatuak adin baldintza bete ez edo eskaera epez kanpo aurkezten duenean baizik.

3. Funtzionarioak zilegi izanen du bere zerbitzu aktiboko aldiaren luzapena bukatzea lan egiten duen administrazio publikoari adieraziz zer datatan asmo duen adinagatik nahitaez jubilatzeko. Adierazpen hori nahitaez funtzionarioak eskatzen duen jubilazio data baino gutxienez bi hilabete lehenago bidali beharko du.

4. Bere zerbitzu aktiboko aldia luzatzen duen funtzionarioari, nahitaezko jubilaziorako adina bete ondoren egoera horretan irauten duen aldia ere kontatuko zaio eskubide pasiboetarako, eta aldi horretan ez da inoiz zilegi izan ezintasunaren zioz jubilatzeko prozedurarik hastea, non ez den lan istripu edo lan eritasun baten ondorioz.

33. artikulua. Ezaldia.

Foru lege honen eraginpeko funtzionarioek nahitaezko jubilazioko pentsioa jasotzeko eskubidea sortuko badute, hamabost urteko kotizazioaldia izan beharko dute, haietatik gutxienez bi urte eskubidea sortu aurre-aurreko hamabost urteetan.

34. artikulua. Pentsioaren erregulazio oinarria.

1. Nahitaezko jubilazioko pentsioaren erregulazio oinarria kalkulatzeko, 210ez zatituko dira pentsioa sortu aurre-aurreko ehun eta laurogei hiletako kotizazio oinarriak.

Aurreko lerroaldeak aipatu duen oinarri kontaketa egiteko honako arauok hartuko dira aintzat, zeinen adierazpen matematikoa atal honetako bukaeran ageri den formula baita.

1. Pentsioa sortu aurreko hogeita lau hiletako kotizazio oinarriak balio nominalean kontatuko dira.

2. Gainerako kotizazio oinarriak gaurkotu egiten dira oinarri horiek dagozkion hiletik aurreko arauak aipatzen duen gaurkotu ezineko oinarrien aldia hasi aurre-aurreko hileraino Kontsumoko Prezioen Indizeak Nafarroako Foru Komunitatean izan duen bilakaeraren arabera.

$$Br = \frac{\sum_{i=1}^{24} B_i + \sum_{j=25}^{180} I_j}{210}$$

Irakurbidea:

Br= Erregulazio oinarria

B_i = pentsioa sortu aurreko i-garren hileko kotizazio oinarria

B_j = pentsioa sortu aurreko j-garren hileko kotizazio oinarria

I_j = pentsioa sortu aurreko j-garren hileko Konsumoko Prezioen Indizea.

$j = 25, 26, \dots, 180$.

2. Erregulazio oinarria kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko kontaketa aldi horrez kanpoko hiletakoak diren kopuruak, kontaketa aldian sartu baziren ere.

3. Erregulazio oinarria kalkulatzeko kontuan hartu behar den aldiko hiletatik bat edo batean ez zaionean kotizaziorik egin Nafarroako administrazio publikoaren kasuko montepioari, hutsune horiek, kalkulu hori egiteko baizik ez, kotizatu gabeko hilei dagozkien E mailako kotizazio oinarri gutxienekoen osatuko dira, non eta ez diren Gizarte Segurantzako edozein araubidetan kotizatutako aldiak, zeren, horretara, gizarte aurreikuspeneko sistema horren kotizazio oinarriak hartuko baitira aintzat.

Aurreko lerroaldeak agintzen duenagatik ere, foru lege honetako eskubide pasiboen araubidean altan edo balio bereko egoeran egon gabe pentsioa sortzen duten funtzionarioei betiere E mailako kotizazio oinarri gutxienekoak hartuko zaizkie kontuan hutsuneok osatzeko.

35. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa.

Nahitazko jubilazioko pentsioaren zenbatekoa finkatzeko, kasuko erregulazio oinarriari behar den portzentajea aplikatuko zaio, zenbat kotizazio urte izan diren, honako eskalaren arabera:

Kotizazio urteak	Erregulazio oinarriaren portzentajea
Hamabost urte	50
Hamasei urte	53
Hamazazpi urte	56
Hemezortzi urte	59
Hemeretzi urte	62
Hogei urte	65

Hogeita bat urte	68
Hogeita bi urte	71
Hogeita hiru urte	74
Hogeita lau urte	77
Hogeita bost urte	80
Hogeita sei urte	82
Hogeita zazpi urte	84
Hogeita zortzi urte	86
Hogeita bederatzire urte	88
Hogeita hamar urte	90
Hogeita hamaika urte	92
Hogeita hamabi urte	94
Hogeita hamahiru urte	96
Hogeita hamalau urte	98
Hogeita hamabost urte	100

Jubilazio-pentsioa jasotzen hirurogeita bost urtetik gora hasten bada, erregulazio oinarriari aplikatu beharreko portzentajea honela aterako da: 100eko 100ari ehuneko bi gehiago erantsiko zaio kotizatu den urte oso bakoitzeko, hirurogeita bost urte betetzen diren egunetik pentsioa sortzeko egoera gertatzen den egunera arte kontatuta, betiere egun horretan interesatuak hogeita hamabost urteko kotizazioaldia aitortua baldin badu. Interesatuak hogeita hamabost urteko kotizazioaldi aitortua ez badu, aipatu portzentaje osagarria aplikatuko zaio kotizazioaldi hori kreditatzen duen egunetik aurrera, hirurogeita hamabost urte bete eta gero.

Kotizazio urtetzat hartuko dira, eta hortaz aurreko lerroaldeek agintzen dituztenetarako kontatuko, zerbitzu aitortuen denbora aldiak, borondatezko eszedentzian edo eginkizunez gabeturik dauden funtzionarioen kotizazio bereziei dagozkienak, eta Gizarte Segurantzako edozein araubidetan kotizatutakoak foru lege honetako 30. artikuluan agintzen denaren arabera.

36. artikulua. Bateriaezintasunak

1. Nahitazko jubilazioa hartzea ezin baterako da sektore publiko nahiz pribatuan lanpostu, kargu edo eginkizun batean aritzearekin.

Lanpostu horretan aritu bitarteko guztian eten egingen da pentsioa jasotzea, baina haren baliobetritzea galarazi gabe.

2. Funtzionario jubilatuak pentsioa aitortu dion Nafarroako administrazio publikoko montepioari aditzera eman beharko dio sektore publiko nahiz pribatuko lanpostu, kargu edo eginkizun batean aritzen dela.

3. atala Borondatezko jubilazioa

37. artikulua. Baldintzak.

Funtzionarioak honako baldintzak betetzen dituztenean, zilegi izanen da borondatezko jubilazioa, berak hala eskatuta:

a) Hirurogei urte beteak izatea.

b) Hogeita hamabost urtez kotizatu duela frogatzea, eta horietatik bi gutxienez pentsio eskubi-dea sortu aurre-aurreko hamabost urteetan.

38. artikulua. Pentsioaren erregulazio oinarria.

Borondatezko jubilazioaren erregulazio oinarria finkatzeko, foru lege honetako 34. artikuluan nahitaezko jubilaziorako agindu dena hartuko da aintzat.

39. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa.

1. Borondatezko jubilazioko pentsioaren zenbatekoa erregulazio oinarriaren 100eko ehunekoa izanen da pentsioa eskatu duen funtzionarioak hogeita hamabost urteko zerbitzu aitortuak dituztenean.

2. Borondatezko jubilazioa eskatu duen funtzionarioak foru lege honetako 37. artikuluan eskatzen diren baldintzak bete bai baina hogeita hamabost urte baino gutxiagoko zerbitzu aitortuak dituztenean, aurreko idatz-zatian aipatu pentsio portzentajeak beheiti eginen dio, taula honetako koeffiziente murriztaileak ezartzearen ondorioz:

Hirurogei urte	0,65
Hirurogeita bat urte	0,72
Hirurogeita bi urte	0,79
Hirurogeita hiru urte	0,86
Hirurogeita lau urte	0,93

40. artikulua. Bateriaezintasunak.

Borondatezko jubilazioaren kasuetako bateraezintasunen araubidea foru lege honetako 36. artikuluan ezartzen dena izanen da.

4. atala Ezintasunaren ondoriozko jubilazioa

1. azpiatala Xedapen orokorrak

41. artikulua. Lan istripua zer den.

Funtzionarioak izaniko zein ere gorputz lesio, baldin eta zerbitzu ematen ari zela izanikoa bada

edo aritze horren ondorioz izanikoa: horiek hartzen dira lan istripuztat.

Erabakitzeke zein kasu hartu behar diren lan istripuztat, Gizarte Segurantzaren gai horren gainean indar duen araudia hartuko da aintzat.

42. artikulua. Lan eritasuna zer den.

Zerbitzuan aritzeagatik zenbait osagaik edo sustantziak erasanik funtzionarioak bereganatu duen eritasuna hartuko da lan eritasuntzat.

Hartarako, Gizarte Segurantzaren eremuan indar duen eritasun zerrenda hartuko da aintzat.

43. artikulua. Lanaz kanpoko istripuak eta eritasun arruntak zer diren.

1. Lanaz kanpoko istripuztat hartuko da foru lege honetako 41. artikuluen arabera lan istripuztat jotzen ez dena.

2. Eritasun arrunta dela juzgatuko da aurreko artikuluen arabera ez dena jotzen ez lan istripu ez lan eritasuntzat.

44. artikulua. Ezintasun iraunkorra zer den.

1. Ezintasun iraunkorra: funtzionarioak, agindutako tratamendua hartu eta alta medikoa eman ondoren, murrizketa anatomiko edo funtzional larriak ageri dituen egoera, murrizketa horiek objektiboki finkatzeko modukoak eta behin betikotzat jotakoak badira, eta gutxitu edo are ezeztatu egiten badiote lanerako gaitasuna. Ezinduak lan gaitasuna berreskuratzeko aukera badago ere, horrek ez du galarazten kalifikazio hau, aukera hori ikuspuntu medikotik auskalokoa edo luzera begirakoa bada.

Aurreko lerroaldean agindutakoa gorabehera, ezintasun iraunkorra emateko ez da beharrezkoa izango alta medikoa behin betiko ondoreak geratu diren kasuetan.

Egoera ezintasun iraunkortzat joko ere da, maila batekoa zein bestekoa, funtzionario batek aldi bateko ezintasunaren gehieneko iraupena ahiturik (bi urte), hala ere osasun laguntzaren beharrean eta lanean ber-hasteko ezindurik dagoenean.

45. artikulua. Jubilazioa ondorio dakarten ezintasun mailak.

1. Jubilazioa ondorio ekar dezaketen ezintasun iraunkorrak maila hauetan sailkatzen dira, zein ere arrazoi edo gertaeraren ondoriozkoa diren:

a) Ezintasun iraunkor osoa ohiko lanbiderako.

b) Ezintasun iraunkor erabatekoa edozer lanetarako.

c) Elbarritasun handia.

2. Ohiko lanbidetzat hartuko da, istripu kasuetan (lanekoak nahiz kanpokoak izan), funtzionarioak istripua izan zuenean aritzen zen lanpostua. Eritasun arrunt nahiz lanekoaren kasuetan, ezintasun prozedura hasi zenean funtzionarioa aritzen zen lanpostua.

3. Ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osoztat hartuko da funtzionarioa bere lanpostuko eginkizun guztiak edo funtsezkoenak egiteko ezintzen duena, betiere beste lan batean aritzeko gai bada.

4. Edozer lanetarako ezintasun iraunkor erabatekotzat hartuko da funtzionarioa edozein lanbide edo ofiziotarako ezintzen duena.

5. Elbarritasun handitzat hartuko da ezintasun iraunkorra duen funtzionario batek, galera anatomiko nahiz funtzionalen ondorioz beste pertsona baten laguntza behar duenean bizitzako eginbehar behinenetarako, hala nola jantztea, mugitzea, jatea eta halakoak.

46. artikulua. Ezintasun mailen kalifikazioa.

1. Zilegi izanen da ezintasun iraunkorra deklaratzeko espedientea edonoz hastea, ofizioz, kasuko Nafarroako administrazio publikoak edo interesatuak hala eskatuta. Ikuskapen Medikoa edo osasun laguntza eman zion medikuak ere izanen du zilegi ezintasun espedientea hasteko eskatzea, hartarako behar den ezintasun proposamena eginaz.

2. Nafarroako ezintasunak baloratzeko Mediku Epaimahaiak proposamen loteslea emanen du, finkatzeko zer ezintasun maila atzeman zaion eta zer arrazoik sortua den.

2. azpiatala

Ezintasunaren ondoriozko pentsioen araubidea

47. artikulua. Pentsio eskubidearen baldintzak.

1. Ezintasun iraunkorraren ondoriozko pentsioa jasotzeko eskubidea sortzeko, beharrezkoa izanen da foru lege honetako 27. artikuluko lehenbiziko letrordeak eskatzen duen baldintza orokorra betetzea.

2. Ezaldirik ez da eskatuko ezintasun iraunkorraren ondoriozko pentsioa jasotzeko eskubidea izateko.

48. artikulua. Erregulazio oinarria.

1. Eritasun arruntaren ondoriozko ezintasun iraunkorraren pentsioaren erregulazio oinarria fin-

katzeko, foru lege honetako 34. artikulua nahitaezko jubilaziorako agintzen duena hartuko da aintzat.

2. Lanaz kanpoko istripu baten ondoriozko ezintasun iraunkorraren pentsioaren erregulazio oinarria kalkulatzeko, 28z zatituko da funtzionarioak 24 hilabete naturaleko aldi etengabe batez izan dituen kotizazio oinarrien batura.

Aurreko letrordeak aipatzen duen 24 hilabete-ko aldi hori funtzionarioak berak hautatuko du pentsioa sortzen den egunaren aurre-aurreko zazpi urteetatik.

Erregulazio oinarria kalkulatzeko aintzat hartzen den aldi horretan funtzionarioak Nafarroako administrazio publikoaren kasuko montepioari kotizatu gabeko hilabeterik agertzen bada, hutsune horiek, kalkulu hori egiteko baizik ez, kotizatu gabeko hilei dagozkien E mailako kotizazio oinarri gutxienekoez osatuko dira, non eta ez diren Gizarte Segurantzako edozein araubidetan kotizatutako aldiak, zeren, horretara, gizarte aurreikuspeneko sistema horren kotizazio oinarriak hartuko baitira aintzat.

3. Laneko istripu edo lan eritasun baten ondoriozko ezintasun iraunkorraren pentsioaren erregulazio oinarria kalkulatzeko 14z zatituko dira funtzionarioak pentsioa sortu aurre-aurreko hamabi hiletan Nafarroako administrazio publikoetatik jaso dituen lansari osoak, bai eta administrazio horren menpeko erakunderen batetik edo Nafarroako Foru Komunitateko beste edozein instituzio publikoetatik.

Denbora tarte horretan aipatu instituzioetatik lansaririk jaso gabeko hilabeterik agertzen bada, hutsune horiek, erregulazio oinarria kalkulatzeko baizik ez, funtzionarioak Nafarroako administrazio publikoaren kasuko montepioan edo Gizarte Segurantzako edozein araubidetan izan dituen kotizazio oinarriez osatuko dira, eta, halakorik ezean, kotizatu gabeko hilabetei dagozkien E mailako funtzionarioen kotizazio oinarri gutxienekoez.

Pentsio horren erregulazio oinarria finkatzeko, honako lansariak ez dira kontuan hartuko:

a) Gizarte Segurantzako araudian aurreikusten den moduan, zerbitzuagatik, bidaiak egiteagatik edo nahitaezko lekualdaketa onorioz bizilekuz aldatzeagatik, hautapen epaimahaietan parte hartzeagatik edo prestakuntza ikastaroak emateagatik egindako gastuen alderako ordainak.

b) Famili laguntza.

c) Aparteko orduen alderako konpentsazioa.

Idatz-zati honetan agintzen dena aplikaturik finkatzen den erregulazio oinarria gutxiagokoa ateratzen bada artikulua honetako lehen edo bigarren idatz-zatietan agintzen dena aplikaturik tokatuko litzatekeena baino, funtzionarioarentzat hobe dena hartuko da erregulazio oinarritzat.

49. artikulua. Ezintasun iraunkor osoaren prestazio ekonomikoak.

1. Ezintasun iraunkor osoagatik jubilazioari dagokion prestazio ekonomikoa bizi arteko pensio bat izanen da, erregulazio oinarriaren ehuneko 55ekoa.

2. Ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osoagatik jubilatzen diren funtzionarioek, aurreko idatz-zatian aurreikusten den pensioa jasoko dute, erregulazio oinarriaren 100eko 20 gehituta, 55 urte betetzen dutenetik.

3. Ohiko lanbiderako ezindutzat jotzen diren funtzionarioek eskubidea izanen dute nahiago dutena hautatzeko: ezintasunaren jubilazioa ala maila bereko beste lanpostu batean berrezartzea, eta, kasu horretan, osorik mantentzen zaizkie ezintasuna eman zaien lanpostuari zegozkion lan-sariak.

Funtzionarioak berrezartzea hautatzen badu, Nafarroako Foru Komunitateko kasuko administrazio publikoak behar den prozedurari hasiera emanen dio eta, hartarako lanpostu huts egokirik ez badago, jubilatu eginen du funtzionarioa, aurreko idatz-zatian aurreikusten den pensioa esleiturik.

Beste lanpostu batean berrezarri behar den funtzionarioak luzenez hilabeteko epean hasi beharko du lanpostu horretan, berrezartzeko agintzen duen ebazpena ematen denetik. Horrela egin ezean, interes partikularreko borondatezko eszedentziaren egoerara pasako da.

4. Aurreko idatz-zatietan agindutakoa gorabehera, ezintasun iraunkor osoagatik jubilatu den funtzionarioari kotizazio urteengatik edo, hala badagokio, adinagatik, gehiagoko pensio portzentajea badagokio idatz-zati horietan aurreikusten dena baino, handiagoko hori esleituko zaio.

Aurreko lerroaldean finkatu bezala kotizazio urteengatik tokatzen den pensio portzentajea finkatzeko, funtzionarioa aldi bateko ezintasun egoeran egon zitekeen luzeneko denbora kontatuko da, egiazki hala egon ez bazen.

5. Ohiko lanbiderako ezintasunagatik jubilatu den funtzionarioak sektore pribatuan lanpostu bat eskuratzen badu, artikulua honetako lehen idatz-zatian aurreikusten den pensioa jasoko du lanpostu horretan ari den bitartean.

50. artikulua. Ezintasun iraunkor erabatekoagatik prestazio ekonomikoak.

Ezintasun iraunkor erabatekoagatik jubilazioari dagokion prestazio ekonomikoa bizi arteko pensioa izanen da, erregulazio oinarriaren 100eko 100ekoa. Foru lege honen 35. artikuluko bigarren lerroaldean zehaztu kasuetan protzentaje hori gainditu ahalko da.

51. artikulua. Elbarritasun handiagatik prestazio ekonomikoak.

Elbarritasun handiaren mailako ezintasun egoerak aurreko artikuluan ezintasun iraunkor erabatekorako ezarri den pensioa jasotzeko eskubidea sortuko du, 100eko 50 gehituta, ezinduari kasu egiten dion pertsona pagatu ahal izateko.

100eko 50eko gehikuntza horri dagokion kopurua ez da kontatuko hasierako zenbatekoa mugatzeari begira eta foru lege honetako 25. artikuluan aurreikusten den pensio-gaurkotzeari begira.

52. artikulua. Ezintasunagatik jubilazioak osatzeko dirulaguntza.

Funtzionarioa ezintasun iraunkorreragatik eta aldi bateko ezintasun egoeraren luzeneko epea ahitu gabe jubilatzen bada, eskubidea izanen du epe hori bete arte, kasuko pensioaz gain, dirulaguntza bat ere jasotzeko epe hori ahituz gero pagatuko zitzaion kopurua osatzerainokoa, betiere ezintasun iraunkorraren pensioa gutxiagokoa bada aldi bateko ezintasunaren prestazioa baino.

53. artikulua. Bateriaezintasunak.

1. Ezintasun iraunkorraren bizi arteko pensioa, zein ere ezintasun mailatakoa den, ezin baterako da sektore publikoan lanpostu, kargu edo eginkizun batean aritzearekin.

Pensioa jasotzea eten eginen da funtzionarioa lanpostu horretan aritzen den denboran, baina balioberritzea galarazi gabe.

2. Aurreko idatz-zatian aurreikusten dena ezertan galarazi gabe, ezintasun iraunkor edo elbarritasun handiko kasuen bizi arteko pensioek ez dute galaraziko ezinduak bere egoerarekin batera ditzakeen beste jarduera batzuetan aritzea, irabazizkoak nahiz irabazi gabekoak izan, ez badiote bere lan gaitasunari aldaketarik sortzen errebisio-etarako.

3. Ezintasun iraunkorreragatik jubilatu den funtzionarioa beharturik dago Nafarroako administrazio publikoaren kasuko montepioari aditzera ematera sektore publikoan lanpostu, kargu edo eginkizun batean aritzen dela, eta bai ere sektore

pribatuan bere gain nahiz besterentzat edozein lan egiten bada.

3. azpiatala Ezintasunaren errebisioa

54. artikulua. Errebisatzeko prozedura.

1. Ezintasun deklarazioak honako arrazoi hauetako batengatik errebisatzen ahal dira ezin-
duak nahitaezko jubilaziorako adina betetzen duen arte:

- a) Hobetu edo okerragotu delako.
- b) Diagnostiko okerra egin zaiolako.

2. Zilegi izanen da ezintasun maila errebisatzeko espedientea ofizioz hastea nahiz interesatuak hala eskatuta eta Nafarroako Ezintasunak Baloratzeko Epaimahai Medikoak proposamen loteslea emanen du horri buruz.

55. artikulua. Errebisioaren eraginak.

Aurreko artikulua aipatzen duen errebisioak hurrengo idatz-zatietan ezartzen diren eraginak izanen ditu:

a) Elbarri handi deklaraturako funtzionarioak, dela hobetu delako dela diagnostikoa okerra zelako, ezintasun iraunkor erabatekoan ber-sailkatzen bada, galduko du bere pentsioaren 100eko 50eko gehikuntza, eratu den errebisio espedientearen gainean ebazpena eman den egunaren hurrengo hilabeteko lehenbiziko egunetik.

b) Elbarri handi deklaraturako funtzionarioa, dela hobetu delako dela diagnostikoa okerra zelako, ezintasun iraunkor osoan ber-sailkatzen bada, aukera izanen du jubilazio egoeran iraun ala beste lanpostu batean berrezarrikerik atzera funtzionario bihurtu nahi duen hautatzeko, foru lege honetako 49.3 artikuluan ezartzen diren ondorioekin.

Zerbitzu aktiboan ber-hasi ezean, dela jubilazioan irautea hautatu duelako, dela hark berrezarzteza hautatu baina ezinezkoa izan delako, kasuari dagokion ezintasun iraunkor osoaren pentsioa jasoko du, errebisio espedientea ebatzi eta hurrengo hilabeteko lehenbiziko egunetik.

c) Ezintasun iraunkor partzialaren egoeran deklaratu funtzionarioak, dela hobetu delako dela diagnostikoa okerra zelako, ezintasunik ez duela juzgatzen bada, ez du inolako diru kopururik itzuli beharrik izanen, eta elbarrizterik gabeko lesio iraunkorrak aitortzen bazaizkio, ezintasun partzialaren deklarazioagatik jaso zuen kalte-ordainak konpentsatuko dio lesio horiengatik jaso behar zuena.

d) Elbarri handi edo ezintasun iraunkor erabateko edo osoaren egoeran deklaraturako funtzionarioa, dela hobetu delako dela diagnostikoa okerra zelako, lanerako gaitzat ber-sailkatzen bada, atzera funtzionario bihurtu eta utzitako lanpostu berean hasiko da berriz, hutsik badago, edo izen bereko nahiz bertuko beste batean, lansari berekin, lanpostu esleipena jakinarazten denetik hila-beteko epean.

Kalifikazio aldaketa diagnostiko oker baten ondoriozkoa izan bada, funtzionarioak eskubidea izanen du, gainera, pentsiotik jaso duenaren eta zerbitzu aktiboan egon balitz jasoko zuenaren arteko diferentzia jasotzeko, bost urteko mugarekin.

Funtzionarioa administrazioari egozteko moduko arrazoiengatik lanean ber-hasten ez den artean, eskubidea izanen du aitortuta zeukan pentsioa jasotzen segitzeko, non eta kalifikazio aldaketa diagnostiko oker baten ondoriozkoa izan ez den, zeren, horretara, eskubidea izanen du utzitako lanpostuko lansariaren beteko pentsioa jasotzeko.

Kalifikazio berrian lanerako gai deklaraturako funtzionarioak lehentasuna izanen du zerbitzu aktiboan ber-hasteko lanpostu erreserbarik gabeko funtzionarioen aurretik, eta behin ber-hasi denean, ez du gehiago kasuko pentsioa jasoko.

Kalifikazio aldaketa diagnostiko oker baten ondoriozkoa izan bada, lanean ber-hasi den funtzionarioak eskubidea izanen du eskubide pasiboen kontaktetan jubilaturik egondako denbora ere sartzeko eta haren kotizazio oinarritzat zerbitzu aktiboan egon balitz tokatuko zitzaizkion oinarriak hartuko dira.

Funtzionarioa, berari egozteko moduko arrazoiengatik idatz-zati honetan ezartzen den epean ber-hasten ez bada zerbitzu aktiboan, interes partikularreko borondatezko eszedentziaren egoerara pasako da eta, betiere, pentsioa jasotzeko eskubidea galduko du.

Kalifikazioa aldaturik lanerako gai deklaratu den funtzionarioari ezintasun iraunkor partziala edo elbarrizterik gabeko lesio iraunkorrak aitortzen bazaizkio, ez zaio inolako kalte-ordainik pagatuko, non eta tokatzen zaion kalte-ordaina pentsio gisa jaso duen diru-kopurua baino gehiagokoa izan ez den, eta betiere foru lege honetako 63. artikulua aurreikusten duena ezertan galarazi gabe.

e) Ezintasun iraunkorren maila bat deklaratu zaion funtzionario bati kalifikazioa aldatu eta gora-goko maila bat aitortzen bazaio, gaitza okerragotu edo diagnostikoa okerra zelako, kasuko pentsioa-

ren seinalamenduak errebisio espedientea ebatzi eta hurrengo hilabeteko lehenbiziko egunetik izanen du eragina.

Kalifikazio aldaketa diagnostiko oker baten ondoriozkoa izan bada, funtzionarioak eskubidea izanen du espedientea ebatzi arte jasotakoaren eta aitortu zaion goragoko ezintasun mailan jaso beharko zuenaren arteko diferentzia jasotzeko, bost urteko mugarekin.

III. KAPITULUA Ezintasun iraunkor partzial eta elbarrizterik gabeko lesio iraunkorren ondoriozko kalte-ordainak

1. atala Ohiko lanbiderako ezeintasun iraunkor partziala

56. artikulua. Zer den.

Ohiko Lanbiderako ezintasun iraunkor partzialtzat hartuko da osoa izateraino iritsi ez, baina funtzionarioari bere lanpostuan aritzeko gaitasun normala 100eko 33 edo gehiagoan murrizten diona, lanpostuko eginkizun funtsezkoak egitea galarazi gabe.

Ezintasun iraunkor hori deklaratzeko, foru lege honetako 46. artikulua agintzen duena hartuko da aintzat.

57. artikulua. Prestazioaren edukia.

Ezintasun iraunkor partzialaren prestazio ekonomikoa kopuru finkatuko diru-kopuru bat izanen da, ezintasun iraunkorren hasburu izandako ezintasunaldi batekoa hasi aurreko hilabeteari dagokion kotizazio oinarriaren betekoa.

58. artikulua. Prestazioa jasotzeko eskubidearen baldintzak.

Aurreko artikuluan aurreikusten den kalte-ordainerako eskubidea izanen dute foru lege honetako 27. artikuluko baldintza orokorra bete eta lan istripu edo lan eritasun batengatik ezintasun iraunkor partzialaren deklarazioa ematen zaien funtzionarioek.

59. artikulua. Zerbitzu aktiboan segitzeko eskubidea.

Kalte-ordain hori jasotzeak ez du galaraziko funtzionarioak zerbitzu aktiboan segitzeko duen eskubidea.

2. atala Elbarrizterik gabeko lesio iraunkorrak

60. artikulua. Zer diren.

Elbarrizterik gabeko lesio iraunkortzat hartuko dira 44. artikulua agintzen duenaren arabera ezintasun iraunkor izatera iritsi ez, baina funtzionarioaren osotasun fisikoa murriztu edo aldatu egiten duten eta Gizarte Segurantzako eremuan hartarako indar duen baremoan ageri diren lesio, mutilazio eta deformazio behin betikoak.

Elbarrizterik gabeko lesio iraunkorrak finkatzeko, foru lege honetako 46. artikuluan aurreikusten dena hartuko da aintzat.

61. artikulua. Prestazioaren edukia.

Elbarrizterik gabeko lesio iraunkorren prestazio ekonomikoa kasuan-kasuan tokatzen den kopuru finkatuko diru kopurua izanen da. Gizarte Segurantzako eremuan indar duen baremoak xedatzen duenaren arabera.

62. artikulua. Prestaziorako eskubidearen baldintzak.

Aurreko artikuluan aurreikusten diren kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izanen dute foru lege honetako 27. artikuluan eskatzen den baldintza orokorra bete, lan istripu edo lan eritasun batengatik elbarrizterik gabeko lesio iraunkorrak izan eta alta medikoa hartu duten funtzionarioek.

63. artikulua. Ezintasun iraunkorren prestazioekiko bateraezintasunak.

Elbarrizterik gabeko lesio iraunkorreatatik tokatzen diren kopuru jakineko kalte-ordainak ezin baterako dira ezintasun iraunkorren ezarri prestazio ekonomikoekin, salbu eta kalte-ordain horiek inolako loturarik ez dutenean ezintasuna eta haren maila deklaratzeko aintzat hartu diren gertaerekin.

64. artikulua. Zerbitzu aktiboan segitzea.

Elbarrizterik gabeko lesio iraunkorreatatik kalte-ordaina jasotzeak ez du galaraziko funtzionarioak zerbitzu aktiboan segitzeko eskubidea.

IV KAPITULUA Hiltzearen eta bizirik irautearen ondoriozko prestazioak

1. atala Xedapen orokorrak

65. artikulua. Prestazioak sortzen dituen gertaera.

Kapitulu honetan jorratzen den prestazio esku-bidea subjektu eskubide-sortzailea hiltzean sortuko da, salbu eta umezurtz pentsioaren kasuan hartzailea seme-alaba aita hil ondoan sortua denean, orduan eskubidea umearen sortegunean sortzen baita.

Hartarako, subjektu eskubide-sortzailea desagertzen denean, Gizarte Segurantzako eremuan indar duen araudia hartuko da aintzat.

66. artikulua. Subjektu eskubide-sortzaileak

1. Hiltzearen eta bizirik irautearen prestazioak jasotzeko eskubidea sortuko dute hiltzen direnean altan, balio berekotzat emandako egoeran, edo alta-ezekoan dauden funtzionarioek eta bai jubilazio pentsiodunek ere.

2. Altan edo balio bereko egoeran dagoen funtzionarioa lan istripu edo lan eritasun batengatik hiltzen denean, tokatzen diren hiltzearen eta bizirik irautearen prestazioak jasotzeko eskubidea sortuko badu, frogatu beharko da gertaera horietako batek ekarri duela heriotza; froga hori ezin onartuko da, lan istripuen kasuan, hiltzea istripuaren ondoko hiru urteetan gertatu denean baizik; lan eritasunen kasuetan froga hori beti onartuko da, zenbat ere denbora iragan den.

67. artikulua. Ezaldia.

Subjektu eskubide-sortzailearen familiako eskubideak sortuzat emateko, ez da beharrezkoa izanen inolako ezaldirik betetzea.

68. artikulua. Eskubidedun ezezagunak edo ondoren sortutakoak biltzea.

1. Hiltzearen eta bizirik irautearen prestazioak seinlatu ondoren hildakoaren eskubidedun berriak agertzen badira, zer ere gertaeratik den, eskubide pasibo berrien eraginak kasuko eskaera aurkeztu eta hurrengo hilabeteko lehenbiziko egunetik hasiko dira, titular berriak jurisdikzio arrunteko organoen aurrean aurreko titularren kontra zilegi dituen egintzak ezertan galarazi gabe, ordu arte tokatzen zitzaizkion diru kopuruak erreklamatzeko.

Kasu horretan, hasiera batez haientzat seinlatu zen prestazioaren titularrak edo titularrak beharturik egonen dira, aitortutako eskubide berrien ondorioz, eskubide berrion ondorio ekonomikoaren datatik aurrera bidegabeki jasotako diru kopuruak itzultzeraz.

2. Aurreko idatz-zatiak agintzen duena gorabehera, eta foru lege honetako 3. artikuluan arautu iraungi-data ezertan galarazi gabe, eskubideen titular berriari pagatuko zaio lehengo nahiz oraingo titularrek jaso zutenaren eta eskubidea sortze-

tik seinalamendu berriak ondorio ekonomikoak izan arteko aldiari tokatuko zitzaionaren arteko diferentzia, halako diferentziarik baldin bada.

2. atala
Alargun pentsioak

69. artikulua. Aurreikusitako pentsio eskubidearen baldintzak.

1. Pentsio-sortzailea hil ondoko ezkontide biziak izanen du eskubidea alargun pentsioa jasotzeko, non eta foru lege honetako 73. artikulua aurreikusten dituenetako iraungitze arrazoietako bat gertatzen ez den.

Foru lege honek agintzen dituenetarako, ezkontide alarguntzat hartuko da bikote finko batetik bizirik dirauin kidea, Bikote finkoen bardingintasan juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 foru legeak aurreikusten duen moduan.

2. Bikote-bereizketa edo dibortzio kasuetan, alargun pentsioa jasotzeko eskubidea ezkontide bidezkoa denak edo izan denak izanen du, hildako ezkontidearekin bizi izandako denboraren arabera zenbatekoan, bikote-bereizketa edo dibortzioa zein ere gertaeratik izan ziren.

70. artikulua. Erregulazio oinarria.

Bizi arteko alargun pentsioaren erregulazio oinarria finkatzeko honako arauak segituko dira:

a) Pentsio-sortzailea, hiltzean, altan, horren balio berekotzat emandako egoeran edo ez-alta egoeran bazegoen, eta heriotza lan istripu edo lan eritasun batengatik ez bada izan, erregulazio oinarria finkatzeko 28z zatituko da pentsio-sortzaileak 24 hilabete natural etengabeko aldi batean izan dituen kotizazio oinarrien batura.

Aurreko lerroaldeak aipatu duen 24 hilabeteko aldi hori hartzaileak hautatuko du, pentsioa sortzen den egunaren aurre-aurreko zazpi urteetatik.

Erregulazio oinarria kalkulatzeko hartzen den aldiari pentsio-sortzaileak Nafarroako administrazio publikoaren kasuko montepioari kotizatu gabeko hilabeterik agertzen bada, hutsune horiek, kalkulatu hori egiteko baizik ez, kotizatu gabeko hilei dagozkien E mailako kotizazio oinarri gutxienez osatuko dira, non eta ez diren Gizarte Segurantzako edozein araubidetan kotizatutako aldiak, zeren, horretara, gizarte aurreikuspeneko sistema horren kotizazio oinarriak hartuko baitira aintzat.

b) Pentsio-sortzailea hiltzen denean altan edo balio bereko egoeran baldin badago eta hiltzea lan istripu edo lan eritasun baten ondorioz gertatu bada, erregulazio oinarria finkatzeko 14z zatituko dira funtzionarioak hil aurre-aurreko hamabi hile-

tan Nafarroako administrazio publikoetatik, haren menpeko erakunderen batetik edo Nafarroako Foru Komunitateko beste edozein instituzio publikotatik jaso dituen lansari osoak, salbu eta foru lege honetako 48. artikuluko hirugarren idatz-zatian aipatzen diren lansariak.

Denbora tarte horretan funtzionarioak aipatu instituzioetatik lansaririk jaso gabeko hilabeterik agertzen bada, hutsune horiek, erregulazio oinarria kalkulatzeko baizik ez, funtzionarioak Nafarroako administrazio publikoaren kasuko monte-pioan edo Gizarte Segurantzako edozein araubidetan izan dituen kotizazio oinarriez osatu-ko dira, eta, halakorik ezean, kotizatu gabeko hila-betei dagozkien E mailako funtzionarioen kotizazio oinarri gutxienezkoak.

Hortik ateratzen den erregulazio oinarria gutxiagokoa bada a) araua aplikaturik ateratzen dena baino, erregulazio oinarria finkatzeko, erregulazio oinarritzat alargun pentsioaren hartzailearentzat hobea dena hartuko da.

c) Pentsio-sortzailea jubilazio pentsioduna bada, erregulazio oinarria hasierako pentsioa finkatzeko hartu zen oinarri bera izanen da, pentsioa aitortu zenetik iraungi zen arte egokitu zaizkion balio-gehikuntzak aplikaturik.

71. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa.

1. Alargun pentsio bizi artekoaren zenbatekoa finkatzeko, pentsio-sortzailearen kotizazio urteengatik tokatzen den pentsio portzentajea hartuko da aintzat, honako arauen arabera:

1. 20 kotizazio urtetaraino, 100eko 40ko portzentajea.

2. 20tik goitiko kotizazio urte bakoitzeko, portzentaje hori 100eko 1ean gehituko da, gehienez 100eko 55 osatu arte, 35 kotizazio urtetarako hain zuzen.

2. Hala ere, alargun pentsioaren zenbatekoa erregulazio oinarriaren 100eko 40koa izanen da baldin aldi berean pentsio-sortzaile berarengandikako alargun pentsiodunak eta umezurtz pentsiodunak badaude.

72. artikulua. Bateriaezintasunak.

Sortzaile batetik baino gehiagotik heldu diren alargun pentsioak ezin baterako dira elkarrekin eta hartzaileak haietako bakar bat hautatu behar-ko du.

73. artikulua. Pentsioa iraungitzea.

Alargun pentsioak honakoetako arrazoi baten-egatik iraungi daitezke:

a) Epai irmo batek deklaratu duelarik hartzaileak pentsio-sortzailearen heriotzan errua izan duela.

b) Hartzailea hiltzen denean.

74. artikulua. Pentsioaren gehikuntza.

1. Alargun-pentsioa jasotzen duen ezkontide dibortziatu bat berriz ezkontzen bada eta beste ezkontide alargun bat badago, berriz ezkondu denak aitorturik zeukan pentsio zatia bigarren horren pentsioari erantsiko zaio.

2. Alargun pentsioaren titularra den ezkontide dibortziatua hiltzen denean, gehikuntzarako eskubidea duen umezurtzik ez dagoelarik, ezkontide horrek esleiturik zeukan zatia, ezkontide alarguna dagoelarik, hari erantsiko zaio.

3. atala **Umezurtz pentsioak**

75. artikulua. Pentsio eskubidea izateko baldintzak.

1. Umezurtz pentsioa jasotzeko eskubidea izanen dute pentsio-sortzailea hiltzen denean hemezortzi urte baino gutxiago dituzten seme-alaba guztiek.

2. Pentsio-sortzailearen seme-alaba batek ez badu irabazizko lanik egiten edo haren irabaziak, bere gaingo nahi besterentzako lanekoak, langa-bezi prestaziokoak, ezintasun iraunkorrekoak edo amatasunekoak, Lanbidearteko Soldata Gutxiene-koaren 100eko 75 baino gutxiagokoak badira, zilegi izanen du umezurtz pentsioa hartzea, betiere pentsio-sortzailea hiltzean hogeita bi urte baino gutxiago baditu, edo, bi gurasoak hil bazazikio, hogeita lau urte baino gutxiago baditu.

3. Pentsio-sortzailearen seme-alabek, halaber, umezurtz pentsioa hartzeko eskubidea izanen dute, baldin eta pentsio-sortzailea hiltzen denean beren lan gaitasuna murrizturik badaukate ezintasun iraunkor erabatekoaren edo elbarritasun handiaren mailan.

4. Halaber umezurtz pentsioa jasotzeko eskubidea izanen dute ezkontide biziak lehendik zituen semealabek, baldin baldintza orokorrez gain beste baldintza berariazko hauek betetzen badituzte:

a) Ezkontza hura pentsio-sortzailea hil baino gutxienez bi urte lehenago egin izatea.

b) Frogatzea pentsio-sortzailearekin eta haren kontu bizi zirela.

d) Gizarte aurreikuspeneko beste sistema batean pentsio eskubiderik ez izatea, eta legeria zibilak hala aginduta haiei mantenua emateko

modua eta obligazioa duen beste ahaiderik ez gelditzea.

76. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa.

1. Umezurtz bakoitzarentzako umezurtz pentsioa pentsio-sortzailearen erregulazio oinarriaren 100eko 20koa izanen da. Oinarri hori kalkulatzeko foru lege honetako 70. artikuluan aipatzen diren arauak erabiliko dira.

2. Aurreko idatz-zatian ezarri den portzentajea-ri, 71. artikuluko bigarren idatz-zatian alargun pentsiorako ezartzen den portzentajea erantsiko zaio baldin pentsio-sortzailea hiltzean ezkontide bizirik gelditzen ez bada edo alargun pentsiorako eskubidea duen ezkontide bizia pentsioa hartzen ari zela hiltzen bada.

Pentsiorako eskubidea duen umezurtz bat baino gehiago badago, gehikuntza hainbanatu eginen zaie.

3. Alargun pentsioaren hartzaile titular bat baino gehiago egon eta haietako bat hiltzen denean, hari esleitu zitzaion pentsio zatia umezurtz pentsioa hartzeko eskubidea duten seme-alabei emanen zaie, eta, halakorik ezean, gainerako umezurtzei 71. artikuluko bigarren idatz-zatiak agintzen duena aplikatzea ezertan galarazi gabe.

Aurreko lerroaldean aipatzen den kasuan, ezkontideetako bat pentsio-sortzailea baino lehen hil bada, hari tokatuko zitzaiokeen pentsio zatia haren umezurtzei esleituko zaie.

4. Umezurtz pentsioak alargun pentsioaren portzentajeaz gehitu eta hartzaileetako edozeinek umezurtz pentsioa hartzeko eskubidea irautitzen bada, bere denboran tokatuko zitzaiokeen alargun pentsioaren portzentaje zatia gainerako hartzaileen umezurtz pentsioari erantsiko zaio.

5. Umezurtz pentsioei alargun pentsioaren portzentajea eranstea ez da zilegi izanen pentsio-sortzaileetako batengandik heldu diren pentsioei baizik.

6. Hartzaile batek berak aitak eta amak sortutako pentsio bana hartzen baditu, gurasoetako batek sortutako pentsioari baizik ez zaio aplikatuko foru lege honetako 25. artikuluko bosgarren idatz-zatian pentsio horren gutxieneko zenbatekoaz eman den xedapena.

7. Zilegi izanen da sortzaileetako bakoitzak sortutako umezurtz pentsioa kasuko erregulazio oinarriaren 100eko 100erainokoa izatea.

8. Alargun eta umezurtz pentsioen batura ez da izanen pentsio horiek finkatzeko erabili den erregulazio oinarria baino gehiagokoa, foru lege

honetako 25. artikuluan pentsio horren gutxieneko zenbatekoaz eman den xedapena ezertan galarazi gabe.

Delako muga hori aplikatu eta hartzaileetako edozeini pentsio horiek hartzeko eskubidea irautitzen bazaio, berriz kalkulatu dira gainerako hartzaileei tokatzen zaizkien pentsioen zenbatekoak, guztien baturak aipatu muga hori iristen duen arte.

77. artikulua. Bateratzekoak.

1. Zilegi izanen da aitak eta amak hartzaile bakar baten alde sortutako umezurtz pentsioak bateratzea.

2. Zilegi izanen da hemezortzi urte baino gutxiago dituzten edo lan gaitasuna ezintasun iraunkor erabatekoaren edo elbarritasun handiaren mailan murrizturik daukaten hartzaileen umezurtz pentsioak bateratzea ezkontide biziaren edo umezurtzaren beraren edozein lan irabazirekin, eta bai, hala tokatzen bada, ezkontide biziak jasotzen duen alargun pentsioarekin.

3. Zilegi izanen da hemezortzi urte baino gehiagoko hartzaileen umezurtz pentsioa, ezintasunik ez dutenean, bateratzea ezkontide biziaren edo umezurtzaren beraren edozein lan irabazirekin, foru lege honetako 25. artikuluko bigarren idatz-zatiak agintzen duen moduan, eta bai, hala tokatzen bada, hark jasotzen duen alargun pentsioarekin.

4. Beren lan gaitasuna ezintasun iraunkor erabatekoaren edo elbarritasun handiaren mailan murrizturik daukaten umezurtzek, umezurtz pentsioa jasotzeko eskubidea izan eta ezintasun berarengatik gizarte aurreikuspeneko beste pentsio bat jasotzen badute, zilegi izanen dute bata ala bestea aukeratzea.

78. artikulua. Pentsioaren pagamendua.

Umezurtz pentsioa honela pagatuko da:

a) Hemezortzi urte baino gutxiagoko hartzaileen kasuan, haien ardura duen pertsonari pagatuko zaio, umezurtzok mantendu eta hezitzeko obligazioa betetzen badu behintzat.

Adingabekoak babesteko ardura duen entitate publikoak atzematen badu umezurtz hori desanparatua dagoela legeek ezarritako babes eginbideok bete ez edo eskas betetzen direlako, pentsioa adingabekoen zaintza eman zaionari pagatuko zaio, Kode Zibilean agintzen den moduan.

b) Hemezortzi urte baino gehiagoko hartzaileen kasuan, zuzenean hartzaileari pagatuko zaio,

non eta judizialki ezgaitua ez dagoen, zeren, horretara, aurreko lerroaldean xedatu den bezala pagatuko baita pentsioa.

79. artikulua. Pentsioa noiz eten.

1. Behin foru lege honetako 25. artikuluko bigarren idatz-zatian aipatu kasuan umezurtz pentsioa jasotzeko eskubidea aitortu delarik, eskubide hori eten egingen da hartzaileak lan kontratu bat sinatu badu edo aurrerakoan sinatzen badu, edozein modalitatekoa, edo bere gaingo lan batean aritzen bada edo langabezi, aldi bateko ezintasun edo amatasuneko prestazioa jasotzen badu, betiere kontratu, jarduera edo prestazio horretatik sortzen diren dirusarrerak, urteko, lanbide arteko soldata gutxienekoaren 100eko 75 baino gehiagokoak badira. Etendurak, eteteko arrazoia gertatu eta biharamunean izanen du eragina.

2. Aurreko idatz-zatian agintzen dena bera aplikatuko da umezurtzak umezurtz pentsioa hemezortzi urte bete baino lehendik jaso izan badu eta bere gaingo nahiz besterentzako lan batean aritu izan bada, edo langabezi, aldi bateko ezintasun edo amatasuneko prestazioa jaso izan badu, betiere haren dirusarrerak muga hori baino gehiagokoak badira. Kasu horietan, etendurak hemezortzi urte betetzen dituenean izanen du eragina.

80. artikulua. Pentsioa berreskuratzea.

1. Pentsioa jasotzeko eskubidea berreskuratze egingen da lan kontratua iraungi, bere gaingo jarduera utzi edo, hala tokatzen bada, langabezi, aldi bateko ezintasun edo amatasuneko prestazioa bukatzen denean edo, jarduera batean aritzen edo prestazio bat jasotzen segitzen badu, batetik zein bestetik heldu diren dirusarrerak ez direnean aurreko artikuluko lehen idatz-zatiko muga baino gehiagokoak.

2. Pentsio-berreskuratze horrek lan kontratua iraungi, jardueratik gelditu edo kasuko prestazioa jasotzen bukatu eta biharamunetik izanen du eragina, edo haietako edozeinengatik jasotzen diren dirusarreraren zenbatekoa aldatu eta biharamunetik.

81. artikulua. Pentsioa iraungitzea.

1. Umezurtz pentsioa hartzaileari buruzko honako arrazoiengatik iraungi daiteke:

a) Umezurtz pentsioa jaso ahal izateko kasuan-kasuan ezarrita dagoen gehieneko adina betetzea, non eta bere lan gaitasuna ezintasun iraunkor erabatekoaren edo elbarritasun handiaren mailan murrizturik ez daukan.

b) Pentsioa jasotzeko eskubidea ematen zion ezintasuna desagertzea.

c) Ezkontzea.

d) Hiltzea.

4. atala

Familiakoentzako pentsioak

82. artikulua. Pentsio eskubidearen baldintzak.

1. Pentsio horren hartzaile izanen dira, hilda-koak ezkontide bizirik edo umezurtz pentsiorako eskubidedun seme-alabarik utzi ez badu ondotik, pentsio-sortzailearen familiakoak, ondorengo puntuetan zehazten direnak, baldin eta sortzailea edo, hala tokatzen bada, haren ezkontidea hiltzean kasuan kasuan aipatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

1) Haren bilobak eta senideak:

a) Hemezortzi urte baino gutxiagokoak, edo gehiagokoak baldin eta lan gaitasuna ezintasun iraunkor erabatekoaren edo elbarritasun handiaren mailan murrizturik badaukate.

5. Pentsio-sortzailearen biloba edo senide batek irabazizko lanik egiten ez badu, edo haren irabaziak urteko -bere gaingo nahiz besterentzako lanekoak izan, edo langabezi, ezintasun iraunkor edo amatasunekoak izan- Lanbidearteko Soldata Gutxienekoaren 100eko 75 baino gutxiagokoak badira, zilegi izanen du familiakoentzako pentsioa hartzea, betiere pentsio-sortzailea hiltzean hogeita lau urte baino gutxiago baditu.

Pentsio-sortzailearen biloba edo senideak aurreko lerroaldean aipatu muga baino gehiagoko irabaziak baditu, pentsioa jasotzeko eskubidea foru lege honetako 79 eta 80. artikuluetan xedatzen denaren mende egonen da.

c) Aitarik eta amarik gabeko umezurtzak.

d) Pentsio-sortzailearekin edo ezkontide biziarekin eta haren kontu bizi izan badira hura hil baino gutxienez bi urte lehenagotik.

d) Beren bizibiderik ez badute eta legeria zibilaren arabera haiei mantenua emateko modua eta legeria zibilak hala aginduta obligazioa duen beste ahaiderik gelditzen ez bazaie.

2) Gurasoak eta aitona-amonak.

a) Hirurogei urte edo gehiagokoak, edo, bestela, lan gaitasuna murrizturik daukatenak, baldin eta ezintasun iraunkor erabatekoaren edo elbarritasun handiaren mailakoa bada gaitasunaren murrizketa.

b) Lehenbiziko puntuko c) eta d) idatz-zatieta-ko baldintzak betetzen dituztenak.

2. Halaber, pentsio eskubidea izanen ere dute, hildakoak ezkontide bizirik edo umezurtz pentsiorako eskubidedun seme-alabarik utzi ez badu, pentsio-sortzailea edo halakorik bada ezkontide bizia hiltzean honako baldintza guztiak betetzen dituzten pentsio-sortzailearen seme-alaba edo senideek:

a) 45 urte baino gehiagokoak izatea.

b) Ezkongai, alargun edo dibortziatuak izatea.

c) Pentsio-sortzailearekin edo halakorik bada ezkontide biziarekin eta haren kontu bizi izandakoak izatea, hura hil baino gutxienez bi urte lehenagotik, luzaro zaindu dituztela frogatzen badute.

d) Beste bizibiderik izan ez eta legeria zibilaren arabera haiei mantenua emateko modua eta obligazioa duen beste ahaidetik gelditzen ez bazaie.

83. artikulua. Erregulazio oinarria.

1. Pentsio-sortzailearen alargunik edo umezurtz pentsiorako eskubidedun seme-alabarik ez dagoelako, pentsio-sortzailea hil eta berehala familiako beste bati aitortzen bazaio, haren erregulazio oinarria finkatuko da foru lege honetako 70. artikulua alargun pentsioetarako ezartzen duen moduan.

2. Aldiz, familiakoentzako pentsioa kasuko alargun pentsioa edo umezurtz pentsioa iraungitakoan aitortzen bada, aurreko lerroaldeak agindu bezala kalkulatu den erregulazio oinarriari pentsio horiek aitortzetik iraungi arte izanen zituzketen balio-gehikuntzak aplikatuko zaizkio.

84. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa.

Familiakoentzako pentsioaren zenbatekoa haietako bakoitzarentzat erregulazio oinarriaren 100eko 20koa izanen da.

85. artikulua. Bateriaezintasunak.

Familiakoentzako pentsioak ezin baterako dira gizarte aurreikuspeneko beste edozein sistemaren pentsioekin.

Familiakoentzako pentsioaren hartzaileak beste pentsio bat jasotzen badu, bata ala bestea hautatu beharko du.

86. artikulua. Pentsioaren pagamendua.

Familiakoentzako pentsioak foru lege honetako 78. artikulua umezurtz pentsioa pagatzeko xedatu irizpideekin bat pagatuko dira.

87. artikulua. Pentsioa iraungitzea.

1. Foru lege honetako 82. artikuluko lehen idatz-zatiko 1. puntuan aipatzen den biloben eta sendeentzako pentsioa, 81. artikuluan umezurtz pentsiorako aipatzen diren arrazoiengatik iraungiko da.

2. Familiakoentzako pentsioa, gainerako kasuetan, hartzailea hiltzean edo pentsioa aitortzeko eskatu ziren baldintzetako bat ez betetzean iraungiko da.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean eta Estatuaren Klase Pasiboetan afiliatu langileen nahitaezko jubilazioa.

1. Nafarroako administrazio publikoen funtzionarioak Gizarte Segurantzako araubide orokorrean afiliaturik badaude, foru lege honetako 31 eta 32. artikuluetan ezarri nahitaezko jubilazioaren mende egonen dira.

2. Nafarroako administrazio publikoen funtzionarioak, Estatuaren Klase Pasiboaren Araubidean afiliaturik badaude, hartan nahitaezko jubilaziorako ezarritako dauden arau berariazkoen mende egonen dira.

Bigarrena. Eskubide pasiboaren sistema honek indar hartu baino lehenagoko kotizazioaldiak nola tratatu.

Foru lege honetako eskubide pasiboaren sistemaren arabera pentsioak seinatzeko, erregulazio oinarria kalkulatzeko kontuan hartu behar badira sistema honen aurreko eskubide pasiboaren sistemaren arabera kotizatutako aldiak, Nafarroako administrazio publikoen montepioek, funtzionarioek aldi horietan izandako lansari benetakoak oinarri, finkatuko dute zer kotizazio oinarri tokatzen diren, Gizarte Segurantzako araubide orokorrean aldian-aldian indar duten kotizazio arauak aplikatuz.

Foru lege honetako eskubide pasiboaren sistemak indar hartu baino lehenagoko denbora tartee-tan kasuko montepioari edo Gizarte Segurantzako araubideren bati kotizatu gabeko hilabeterik agertzen bada, hutsune horiek betetzeko, erregulazio oinarria kalkulatzeko baizik ez, Gizarte Segurantzako araubide orokorrean hemezortzi urtez goitiko langileentzat unean-unean dauden kotizazio oinarrietatik txikiena hartuko da aintzat.

Hirugarrena. Terrorismo egintzen ondoriozko pentsio bereziak.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Montepioetako funtzionarioak terrorismo egintzaren baten

biktima badira, pentsio bereziak sortzeko eskubidea izanen dute, Gizarte Segurantzaren arloan indarra duen arautegian ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. Eskubideen transferentzia, Europako Erkidegoen langileen aurreikuspen sozialeko sistemaren eta Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioen artean.

Aipatu Montepioetako baten menpe egon diren langileen kasuan, Europako Erkidegoen langileen aurreikuspen sozialeko sistemaren eta Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioen artean eskubideen transferentzia egiteari begira, Gizarte Segurantzaren arloan horretarako emandako arautegiari segituko zaio. Zehazki, Europako Erkidegoen sistemari transferitu beharreko eskubideei dagokiena kalkulatzeko, langile horiek kasuan kasuko montepioen mepe egon zirenean izan zituzten lansari benetakoetatik abiatuko da, eta kotizazio oinarriak eta pentsioak zehazteko, aldian-aldian Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean indarra duten kotizazio eta jubilazio arauak hartuko dira kontuan.

Kotizazio hutsuneak integratzeari dagokionez, eskubideak transferitu behar diren kasuetan, Bigarren xedapen gehigarriko bigarren lerroaldian adierazitakoa aplikatuko da.

Bosgarrena. Alargun pentsioaren zenbatekoa finkatzeari buruzko arau berezia.

Foru lege honetako eskubide pasiboen sistemaren arabera sortutako alargun pentsioaren zenbatekoa eta, sortzaile berarengandiko umezurtz pentsiorik badago harena ere baturik, ez da gutxiagokoa izanen pentsio horretarako aurreko sistemaren arauak aplikaturik sortuko litzatekeena baino, Foru lege honetako 25. artikuluan pentsioen hasierako zenbatekoaren mugei buruz xedatzen dena ezertan galarazi gabe.

Seigarrena. Eskubide pasiboetarako, apaiz edo bestelako erlijio-langile izandako funtzionarioei jarduera horien aldiak ere kontatzea.

Foru lege honek indar hartu ondoren Nafarroako administrazio publikoen montepioetan eskubide pasiboak sortzen dituzten funtzionarioei, eta bai lehenagotik montepio horietan jubilazio pentsiodunak direnei ere, Eliza Katolikoko apaiz edo erlijio-gizon nahiz –emakume izan eta geroztik sekularizatu edo erlijio lanetik gelditu baziren, apaiz edo erlijio langile izandako aldiak ere aitortuko zaizkie eskubide pasiboen kontaketarako, Gizarte Segurantzako araudian aurreikusten den moduan.

Zazpigarrena. Nafarroako administrazio publikoen montepioetan sartutako funtzionarioen lan-

sariak, pentsioa sortzen duen egintza gertatzen den hilabeteari dagozkionak.

Nafarroako administrazio publikoen montepioetan sartutako funtzionario zerbitzu aktiboan ari direnek eskubidea izanen dute jubilatu diren hilabeteko lansari osoa jasotzeko.

Zerbitzu aktiboan zegoela hildako funtzionarioaren eskubidedunei, halaber, hiltzea gertatu den hilabeteko lansari osoa pagatuko zaie.

Zortzigarrena. Nafarroako administrazio publikoen montepioetan eta eskubide pasiboen sistema berriaren pean dauden funtzionarioen famili laguntza.

Nafarroako administrazio publikoen montepioetan eta eskubide pasiboen sistema berriaren pean dauden funtzionarioek eskubidea izanen dute famili laguntzagatik tokatzen zaizkien diru kopuruak jasotzeko, Gizarte Segurantzaren eremuan indar duen araudiaren arabera.

Bederatzigarrena. Nafarroako administrazio publikoaren montepioak.

Nafarroako administrazio publikoek aurrera ere burutuko dituzte gaur egun zein bere kudeaketa arloan esleiturik dituzten montepioenganako egin-kizun eta zerbitzuak eta ez dute zilegi izanen foru lege honek indar hartu baino lehen haietako bakoitzean indarrean zen eskubide pasiboen erregulazio araudia aldatzea.

Hamargarrena. Udal montepioen finantzabidea.

1. Nafarroako toki entitateek Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepioko klase pasiboen urteroko kostu garbi osotarakoa finantzatzeko dute, 100eko 64,3 hain zuzen. Osotarako diru kopurua ez da inola ere 10.682.014 eurotik gorakoa izanen. 2002. urtetik aurrera, diru-muga horiei kasuko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legeak pentsioetarako finkatzen duen igoera aplikatuko zaie.

2. Iruña, Tafalla eta Tuterako udalek zein bere montepioko klase pasiboen urteroko kostu garbia finantzatzeko dute, ehuneko 77,1ean. Osotarako diru kopurua ez da inola ere 9.312.961 eurotik, 454.520 eurotik eta 1.082.046 eurotik gorakoa izanen, hurrenez hurren. 2002. urtetik aurrera, diru-muga horiei kasuko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legeak pentsioetarako finkatzen duen igoera aplikatuko zaie.

3. Aurreko kostu garbi osotarakoa finantzatzeko behar diren kopuru osagarriak Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik hartuko dira.

Hamaikagarrena. Nafarroako Administrazio Publikoaren Montepioetan eta Gizarte Segurantzaren araubideetan kotizazioak batera konputatzea.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio, urte bateko epean, Estatuarekin hitzarmen bat egin dezan, Nafarroako Administrazio Publikoaren Montepioetako eta Gizarte Segurantzaren araubideetako kotizazioak batera konputatzeari begira.

Xedapen iragankorrak

Lehenbizikoa. Erregulazio oinarria kalkulatzeko kotizazioaldiak pausoka aplikatu beharra.

Foru lege honetako 34. artikuluko lehen idatzatian xedatzen dena pausoka aplikatuko da, data sail honen arabera:

2000ko urtarrilaren 1etik aurrera, jubilazio pentsioaren erregulazio oinarria honela kalkulatu da: pentsioa sortu aurre-aurreko 96 hiletako kotizazio oinarriak zati 112.

2001eko urtarrilaren 1etik aurrera, jubilazio pentsioaren erregulazio oinarria honela kalkulatu da: pentsioa sortu aurre-aurreko 108 hiletako kotizazio oinarriak zati 126.

2002ko urtarrilaren 1etik aurrera, jubilazio pentsioaren erregulazio oinarria honela kalkulatu da: pentsioa sortu aurre-aurreko 120 hiletako kotizazio oinarriak zati 140.

2003ko urtarrilaren 1etik aurrera, jubilazio pentsioaren erregulazio oinarria honela kalkulatu da: pentsioa sortu aurre-aurreko 132 hiletako kotizazio oinarriak zati 154.

2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, jubilazio pentsioaren erregulazio oinarria honela kalkulatu da: pentsioa sortu aurre-aurreko 144 hiletako kotizazio oinarriak zati 168.

2005eko urtarrilaren 1etik aurrera, jubilazio pentsioaren erregulazio oinarria honela kalkulatu da: pentsioa sortu aurre-aurreko 156 hiletako kotizazio oinarriak zati 182.

2006ko urtarrilaren 1etik aurrera, jubilazio pentsioaren erregulazio oinarria honela kalkulatu da: pentsioa sortu aurre-aurreko 168 hiletako kotizazio oinarriak zati 196.

2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, jubilazio pentsioaren erregulazio oinarria honela kalkulatu da: arestian aipatu 34. artikuluko lehen idatzatian xedatzen dena oso-osorik aplikatuz.

Bigarrena. Funtzionarioek aurreko eskubide pasiboaren sistemaren aplikazioa hautatzeko eskubidea.

1. Nafarroako administrazio publikoaren montepioetan sartutako funtzionarioek epe bakar luze izan dute, foru lege honek indar hartzen duen egunetik sei hilabete hain zuzen, legean ezartzen denaren aurreko eskubide pasiboaren sistemara irautea hautatzeko, zein ere egoera administratibotik dauden.

Hala ere, foru lege honek indar hartzean zerbitzu berezietan, borondatezko eszedentzian edo eginkizunez gabeturik dauden funtzionarioek zilegi izan dute haiek ere eskatzea foru lege honetan ezartzen denaren aurreko eskubide pasiboaren sistemara irautea; zerbitzu aktiboan ber-hastan diren egunetik hilabete epean egin beharko dute eskaera.

2. Hautatzen dena hauta, ez da atzera egiterik izanen eta erabakiak funtzionario horiek sortzen duten edozein pentsio lotuko du.

Hirugarrena. Pentsiodunek aurreko eskubide pasiboaren sistemaren aplikazioa hautatzeko eskubidea.

1. Nafarroako administrazio publikoaren montepioetan sartutako funtzionarioek, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera jubilatu badira eta pentsioa sortu zuten momentuan foru lege honetako eskubide pasiboaren sistemak jubilazioa iristeko eskatzen dituen baldintzak betetzen bazituzten, epe bakar luze izan dute, legeak indar hartzen duenetik sei hilabete epean, beren pentsioa sistema honen arabera kalkulatu diezaieten hautatzeko.

Aurreko idatz-zatian ezarritako epea izanen dute, baita ere, Nafarroako administrazio publikoaren montepioetan sartutako funtzionarioek sortutako pentsioak jasotzen dituztenek, baldin eta funtzionario horiek 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera jubilatu edo, zerbitzu aktiboan egonda, hil badira, eta, betiere, pentsio horiek foru lege honen aurretik ezarritako eskubide pasiboaren sistemaren arabera kalkulatu baziren.

2. 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera jubilatu diren funtzionarioek, baldin eta pentsioa sortu zuten momentuan foru lege honetako eskubide pasiboaren sistemak eskatzen dituen baldintzak betetzen ez bazituzten, baina orain, hots, foru lege honek indarra hartzen duenerako, betetzen badituzte, eskubidea izanen dute, aurreko zenbakian finkatu epearen barruan, pentsioa sistema horren arabera kalkulatu diezaieten eskatzeko.

Foru lege honek indarra hartzen duen egunetan, bertan ezarritako eskubide pasiboaren sistemaren bidez pentsioa sortzeko baldintzak betetzen ez badituzte, zerbitzu aktiboan ber-hasteko eskubidea izanen dute, foru legea indarrean sartu eta

hilabeteko epean hain zuzen, horrela eskubide pasiboen sistema berriaren pean egoteko.

3. Hautatzen dena hauta, erabakia aldaezina izanen da, eta pentsioaren zenbateko berriak atzerako eragina izanen du, pentsioa sortu zenez aurrera hain zuzen, salbu eta aurreko zenbakiko lehenengo lerroaldean araututako kasuan, izan ere, kasu horretan, foru lege honetan ezarritako eskubide pasiboen sistemaren bidez pentsioa sortzeko beharkizunak betetzen diren egunera arte eginen da atzera.

Laugarrena. Eskubide pasiboen sistemari kotizatzearen gaineko arau iragankorra.

Nafarroako administrazio publikoetako monte-pioetako funtzionarioek, bigarren xedapen iragan-korreetan aurreikusten den sei hileko epean, foru lege honetan ezartzen den eskubide pasiboen sistemaren aurretik zegoen sistemak ezarritako kotizazio arauen arabera kotizatuko dute behin-behinekoz.

Nafarroako administrazio publikoek erregularizatu egiten dituzte behin-behinekoz egindako kotizazio horiek, foru lege honetako eskubide pasiboen sistemari behin betikoz sartzen diren funtzionarioen kasuan.

Bosgarrena. Kotizazio bereziak egitea hautatzeko epeari buruzko arau iragankorra.

1. Foru lege honek indar hartzen duenean haren 18 eta 19. artikuluetan aipatzen diren egoeretakoa batean dauden funtzionarioek aukera izanen dute artikulua horietan aurreikusten diren kotizazio bereziak egitea hautatzeko, legeak indar hartu eta sei hilabeteko epean hain zuzen.

2. Aurreko lerroaldean aipatu aukera erabiltzen duten funtzionarioak behin betiko sartuko dira foru lege honetako eskubide pasiboen sistemari.

Seigarrena. Zerbitzu aktiboko aldia luzatzeko eskaera egiteko epeari buruzko arau iragankorra.

Zerbitzu aktiboko funtzionarioek, baldin eta foru lege honek indar hartzen duenean hirurogeita bost urte edo gehiago badituzte edo adin horretara hurrengo sei hiletan iritsi behar badute, aukera izanen dute beren zerbitzu aktiboko aldia luzatzea eskatzeko, legeak indar hartu eta sei hilabeteko epean hain zuzen.

Xedapen indargabetzailea

Bakarra. 1. Indargabetzen dira Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategineko II. tituluko X. kapitulua (testu hori abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak onetsi zuen).

2. Halaber, Kode Zibileko 2. artikulua agintzen duenez, indargabetzen dira foru lege honetan agintzen denari kontra egin edo harekin ezin batera daitezkeen arau guztiak.

Azken xedapenak

Lehena. Eregelamendu bidezko garapena.

Ahalmena ematen zaio Gobernuari foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren arauak emateko.

Bigarrena. Indar hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nekazaritza azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat eransten diona

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko urriaren 28an hartutako erabakiaren bidez, Nekazaritza azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat eransten dion Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nekazaritza azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat eransten dion Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordearen esku uztea.

3.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun baliouduneko epea irekiko da, 2002ko abenduaren 2ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Nekazaritza azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat eransten diona

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuak, martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen bidez, Nekazaritzako azpiegiturei buruzko Foru Legea onetsi zuen, besteak beste, lurzatiak berrantolatzeke ohiko prozedura eta prozedura laburra arautzen dituen.

Arlo horri buruzko arautegiak honako hauek biltzen zituen: lehenbizi, Nekazaritza berritu eta garatzeko legearen testua onesten zuen urtarrilaren 12ko 118/1973 Dekretua eta gero Nekazaritzako azpiegituren berrikuntzari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legea. Hala ere, lurzati prozeduretan gertaturiko eskubide eskualdaketei edo bestelako aldaketei buruz arau bat bazeukan, oraingo arautegian aipatzen ez dena.

Eragingarritasuna eta segurtasun juridikoa direla-eta, komeni da eskualdaketak eta aldaketak egiteko epe bat ezartzea, prozeduraren bukaerarekin bat datorrena. Bukaera hori, lurzati berrantolamenduetan, jabetzaren antolamendu berria daukan Erabakia irmo bihurtzen denean gertatzen da.

Bestetik, gaur egun berrantolamendu batzuk hasiak daude. Batzuetan 18/1994 Foru Legeak du indarra eta beste batzuetan 1973ko Legeak. Foru lege hark epe laburrago bat ezartzen zuen aldaketak egiteko, bakarrik erabakia argitaratu arte baimentzen baitzituen. Estatuko aurreko legeak, baina, ez zuen eperik ezartzen eta, beraz, ulertu behar zen irmo bihurtzean, lurzatiak berrantolatzeke prozedurarekin batera alegia, bukatzen zela.

Segurtasun juridikoko eta tratu administratibo bereko irizpideak direla-eta komeni da legerako proposaturiko aldaketa lurzatiak berrantolatzeke gaur egun izapidatzen ari diren prozedura guztietara zabaltzea. Haietarako guztietarako eperik zabalena ezarriko da, Erabakia irmo bihurtzen denekoa, alegia.

Lur-trukaketei dagokienez, lehen azaldu diren arrazoi berengatik, bidezko da arautegian aipatzen diren epe guztiak batzea. Horrela, izapidatzen ari diren berrantolamendu guztietan martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeko 28. artikuluko 3. idatz-zatian xedaturikoa izanen da arau.

Artikulu bakarra.

1. Nekazaritzako azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeko xedapen gehigarri bakarra lehenbiziko xedapen gehigarri bihurtzen da.

2. Nekazaritzako azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat eransten zaio, bigarrena, eduki hau izanen duena:

“Foru lege honek indarra hartzean lurzatiak berrantolatzeke izapidatzen ari diren prozedura guztietan, zer arautegik zuzentzen dituen kontuan

hartu gabe, baita hastekoak diren prozeduretan ere, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak oinarriak argitaratzen direnetik erabakia irmo bihurtu bitarte jakinarazten diren eskubide eskualdaketak edo bestelako aldaketak baimentzen ahalko ditu, baldin eta behar bezala frogatzen badira.

Lur-trukaketetan, foru lege honetako 28. artikuluko 3. idatz-zatia izanen da arau”.

3. Foru lege horretako “xedapen gehigarria” idazpurua “xedapen gehigarriak” bihurtzen da.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Hortz-protésigileen Elkargo Ofiziala sortzekoa

AKATS ZUZENKETA

2002ko urriaren 14ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean Nafarroako Hortz-protésigileen Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Lege proiektuaren gainean Mahaiak harturiko erabaki bat argitaratu zen. Erabaki horretako 2. puntuan “Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea” esan ordez,

“Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordearen esku uztea” esan behar zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoa berriz mugatzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentuko Taldeak Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoa berriz mugatzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoa berriz mugatzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrús

Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoa berriz mugatzeari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Lurraldea babestu eta erabiltzeko eskualdeko hirigintza arauetara buruzko apirilaren 10eko 6/1987 Foru Legearen bitartez, natur erreserben figura sortu zen, intereseko naturguneen kategoria bat bezala. Lehenbiziko xedapen gehigarriak, besteak beste, Larrako alderdia deklaratu zuen naturgune,

Izabako udalerrian; foru legeko eranskinean haren mugak jaso ziren.

Xedapen gehigarri horretako 3. azpi idatzatiaz, dei egiten zitzaion Nafarroako Gobernuari babespeneko eremu periferiko jarraitu bat muga zezan, gehienez ere 500 metroko zabalera, hartara natur erreserba sortzea justifikatzen dituzten natur baliabideak guztiz babesteko eta kanpoko eragin ekologikoak eta paisaiari lotutakoak saihesteko.

Uztailaren 5eko 209/1993 Foru Dekretuaz, Larrako natur erreserbaren erabilpen eta kudeaketa plana eta haren babes eremu edo zerrendaren mugapena eta erabilpen erregimena onetsi ziren.

Aipaturiko erabilpen eta kudeaketa planak baimena ematen zuen, ordura arteko baldintza beretan, Izabatik Frantziarako errepidean ipar eskiko eskola edo ikastaroak emateko, praktika hori natur erreserba babestearekin bateragarria zelakoan. Bestalde, dekretuak ezarri zuen babes eremuan Etxebizitza, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Departamentuak baimena eman ahalko duela ipar eskiko laguntza-erakunde edo -instalazioetarako, baina abenduaren 1etik maiatzaren 1era bitarte soilik erabili ahalko direla.

Arauen testuinguru horretan, Erronkari ibarrean ipar eskian aritu izan da, zailtasunak gorabehera.

Ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeak Nafarroako naturguneetara buruzko arauak onetsi zituen, eta natur erreserben figurari eutsi zion, erabateko indarra emanaz Lurraldearen babespen eta erabilerarako hirigintza arauetara buruzko apirilaren 10eko 6/1987 Foru Legearen bitartez finkaturiko natur erreserbei, eta, aldi berean, babes eremuei edo zerrendei beste muga batzuk ezarri zizkien; izan ere, une horretatik aurrera, babespeneko bazter-eremu edo babespeneko eremu periferiko izena izanen dute, eta jarraipenik gabeak ere izan ahalko dira.

Aipaturiko 9/1996 Foru Legeak babes araubide berri bat ezarri zuen natur erreserbetarako eta haien babespeneko eremu periferikoetarako. Zehazki, natur erreserben arloan, 11. artikulua kirol jardueretarako lurra egokitzeko edozein ekintza ez ezik, berariaz debekatzen du ere kirol jarduera antolatuetan aritzea.

Babespeneko eremu periferikoari dagokionez, 18. artikulua ezarri zuen eremu horretan naturgurenean erabilera eta kudeaketa planak natura zaintzearekin bateragarriak jotzen dituen kiroletan aritzeko baimena eman ahal izanzen dela.

Uztailaren 6ko 230/1998 Foru Dekretuaren bitartez, Nafarroako natur erreserbak erabili eta kudeatzeko plan zuzentzaileak onetsi ziren, eta deklaratu zen mugarik gabeko indarraldia duela uztailaren 5eko 209/1993 Foru Dekretuak, Larrako natur erreserbaren erabilpen eta kudeaketa plana onetsi zuena, baina zenbait aldaketa egiten dizkio 9/1996 Foru Legetik ondorioztaturiko marko juridiko berriari egokitzeko. Berariaz desagertzen da ipar eskiko jardueren aipamen oro, bai eta laguntza-instalazioena ere, eta kirol jarduera antolatua egiteko erabateko debeku argia ezartzen du.

Azken batean, Larrako erreserbaren eta haren babespeneko eremu periferikoaren marko juridikoak ez dio inongo babesik ematen ipar eskiaren praktikari egungo El Ferial, Eskilzarra eta Bortuzko pistetan, eta eragotzi egiten du orain arte Izaatik Frantziarako errepideko lurretan jarduera horretan aritu izan den bezala segitzea.

Bestalde, esperientzia praktikoa luze baten ondoren, aurka ezinezko errealitate bat da Erronkari ibarrentzat eta Nafarroa guztiarentzat Larrako pistetan ipar eskia egiteko elurra modu arrazionalan aprobetxatzeak duen garrantzi sozial, ekonomiko eta kulturala. Elurra eta haren aprobetxamendua funtsezko elementuak dira Erronkari ibarrak bizirik irautea bermatzeko.

Hala eta guztiz ere, baliabide honek iraun ahal izateko, beharrezkoa da kalitate, segurtasun eta jarraitasuneko gutxieneko baldintza batzuk betetzea, eta horretarako, Erronkari Ibarreko Batzarrak hasitakoa bezalako ekimenak behar dira, hau da, ipar eskiko zentroa birmoldatzeko ekimena bezalakoak; baina ekimen horiek egungo arauarekin egiten dute topo.

Egoera dela eta, foru lege proposamen hau aurkeztu dugu, batera biltzen diren bi interesak uztartu ahal izateko: Larra aldeko ingurumena babestea eta hura eta ipar eskiaren praktika modu harmonikoan batera gertatzea; betiere, praktika hori antolatua izanzen da eta teknikoki egokia, eta

ingurumenaren ikuspegitik bateragarri gertatuko da garatu behar den lekuko balore eta baliabide naturalen babestearekin.

Foru lege proposamen honek Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoaren mugapena berraztertu nahi ditu, kanpo utzirik egun El Ferial, Eskilzarra eta Bortuzko pistak kokatuta dauden alderdia, bai eta Erronkari Ibarreko Batzarrak eginiko azterlan xehe eta zorrotz baten arabera Larra-ko Ipar Eskiko Zentroa egokitzeko onenak bezala hautatu diren lurra ere.

Larrako Natur Erreserbaren azalera 2.353 Ha hartzen ditu, eta babespeneko eremu periferikoak, berriz, 917 Ha.

Egin nahi den birmoldaketak 60 Ha hartzen ditu; azalera hori ez da kuantitatiboki hautemateko modukoa, eta bere kokapena, errepidearekin muga egiten duen eremuaren kanpoko ertzean baitago, ezin da, ezta ere, esan garrantzi handikoa denik Larra natur erreserba izendatzeko aintzat hartu ziren balore eta baliabideen aldetik.

Zehaztu beharra dago erreserbako lurretan eta haren babespeneko eremu periferikoan ipar eskian aritzeko behar diren lurra kanpo uzteak ez duela esan nahi lur horiek ingurumen arloko egokitzapen eta babespen arauak bete beharretik liberatzen direnik, zeren eta lur horietan sartzen baitira Nafarroako Gobernuak 1996ko irailaren 2ko erabakiaren bitartez kontserbazio bereziko eremu deklaratu daitezkeen Nafarroako erregio alpinoko lekuetako zerrendaren proposamenaren, Natura 2000 Sare Ekologikoan sartzeko ondorioetarako, hain zuzen ere Larra-Aztaparretako alderdian. Horrek berekin dakar lur horiek Habitat naturalak eta basa fauna eta flora zaintzeari buruzko Europako Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/CEE Zuzentarauan sartutako betekizunei loturik daudela.

Azaldutakoa dela eta, Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoa berriz mugatzeari buruzko Foru Lege proposamen hau aurkeztu dugu.

1. artikulua.

Larrako erreserbaren eta haren babespeneko eremu periferikoaren birmugatzeari onesten da. Hona deskribapena:

Larrako Natur Erreserba (NE-12).

Izabako udalerrria (Erronkari Ibarra)

Izabako ipar-ekialdean kokatua.

LARRAKO NATUR ERRESERBAREN ARLOAREN DEFINIZIOA**Mugak.**

Iparraldetik: X, 679.804; Y, 4.758.934; Z, 1.596 koordinatu-puntutik, Frantziako mugaren lerroan, eta lerro horretatik jarraituz X, 681.428; Y, 4.759.641; Z, 1.659 koordinatu-punturaino ("La Contiendarekiko" elkargunearen hasierako puntua). Aurreko puntutik zuzen, hegoaldera, X, 681.428; Y, 4.759.117; Z, 1.631 koordinatu-punturaino. Aurreko puntutik zuzen, ekialdera, X, 683.199; Y, 4.759.116; Z, 1.859 koordinatu-punturaino. Iparraldera X, 683.199; Y, 4.759.679; Z, 1.842 punturaino. Aurreko puntutik zuzen, ekialdera, X, 681.536; Y, 4.759.683; Z, 1.654 koordinatu-punturaino (Frantziako muga eta "La Contiendarekiko" elkargunearen bukaera). Puntu horretatik aurrera eta Frantziako mugatik Arlasko gailurreraino.

Ekialdetik: Arlasko gailurretik, Frantziako mugatik, Hiru Erregeen mahairaino.

Hegoaldetik: Antsoko udalerritik Lapakiko hego-mendebaldeko gailurreko punturaino, 1.650 kotan.

Medebaldean: IIM, Aztaparretako erreka ondoan, 1.260 kotaraino, 720 metroko lerro bat, IE norabidean, Erregearen haitzen azpitik dagoen pinudiko IEko muturreraino, 1.240 kotan, MIMko norabideko 820 metroko lerroa Rincón de ko landa-alorren mugaraino, 1.100 metrotan, pagadiko mugako 500 metro, Iparrerrantz, 1.150 metroko kotaraino, EIEko norabidean, 1.500 metroko kotaraino, Antxomarroko iturriaren ondoan; Iparralderantz gora doan lerroa, 1.650 metroko kotaraino, Lapazarrako hegoaldeko hegiko amildegietako mugaraino, eta M eta IM norabidean jarraitzen du, Lazagorriako hegoaldean, Zemetoko atariraino, IErantz bira egiten du Eskilzarrako zelaiaren muga, IM eta I norabidean jarraitzen du, hegoaldean Bortuzko larreekin muga egiten duten amildegietaraino eta gero iparraldera, Zanporiko larreak mendebaldean utzita, UTM X, 679.788; Y, 4.757.818; Z, 1.704 koordinatu-punturaino, "El Ferialeko" elkargunean. Aurreko puntutik zuzen, ekialderantz, X, 680.299; Y, 4.757.818; Z, 1.745 koordinatu-punturaino. Aurreko puntutik iparraldera, X, 680.299; Y, 4.758.934; Z, 1.667 koordinatu-punturaino. Aurreko puntutik zuzen, mendebaldean, X, 679.804; Y, 4.758.934; Z, 1.596 koordinatu-punturaino (Frantziako muga eta El Ferialekiko elkargunearen bukaera).

Larrako natur erreseerbako babespeneko eremu periferikoa.

Izabako udalerria (Erronkari Ibarra)

Izabako EIn kokatua.

LARRAKO NATUR ERRESERBAREN ARLOA DEFINITZEA – BABESPENeko EREMU PERIFERIKOA**Mugak.**

Iparraldetik: X, 678.976; Y, 4.758.229; Z, 1.595 koordinatu-puntutik abiatuz, hori baita El Ferialekin babes-eremuak duen elkargunea, hego-ekialdeko norabidean X, 677.700; Y, 4.758.000; Z, 1.660 koordinatu-punturaino.

Medebaldean: Aurreko puntutik abiatuta, babes mugak hego-mendebaldeko norabidean jarraitzen du, arro baten barrena errepedieraino. Errepideari jarraitzen dio, UTM X, 676.820; Y, 4.757.524; Z, 1.470 koordinatu-punturaino. Puntu horretatik, eta zuzen hego-mendebaldeko norabidean, X, 676.470; Y, 4.758.548; Z, 1.850 koordinatu-punturaino iristen da muga, eta hortik zuzenean ibaiaren gaineko errepediearen punturaino iristen da.

Hegoaldetik: Zubitik hasita, mugak hego-mendebalderantz jarraitzen du, Rincón de ko oihana eta landalurrak bereizten diren tokitik, Corral de Intxa izenekora iritsi arte. Hortik, mugak zuzen egiten du hego-ekialderantz, UTM X, 678.020; Y, 4.754.610; Z, 1.080 koordinatu-punturaino. Aurreko puntutik, 1.080 metroko kotatik, X, 678.400; Y, 4.754.692; Z, 1.080 koordinatu-punturaino jarraitzen du.

Ekialdetik: Aurreko puntutik, ipar-ekialdeko norabidean, Bortuzkoren hegoaldea zeharkatuz, X, 679.788; Y, 4.757.818; Z, 1.704 koordinatu-punturaino ("El Ferialekiko" eta erreseerba naturalekiko elkargunea). Aurreko puntutik mendebaldeko norabidean, X, 678.976; Y, 4.757.818; Z, 1.590 koordinatu-punturaino. Aurreko puntutik iparraldeko norabidean, X, 678.976; Y, 4.758.229; Z, 1.595 koordinatu-punturaino. ("El Ferial" eta babes-eremuaren elkargunea).

2. artikulua.

Nafarroako Gobernuak, lau hilabeteko gehieneko epean, foru dekretuz Larrako Erreseerbaren eta haren babespeneko eremu periferikoaren mugatze grafikoa onetsiko du, onetsitako mugatzeari jarraituz.

Xedapen indargabetzailea

Honako xedapenak espresuki indargabetzen dira:

a) Lurraldea babestu eta erabiltzeko eskualdeko hirigintza araei buruzko apirilaren 10eko 6/1987 Foru Legetik II. eranskinean bildutako Larrako natur erresebaren mugapena (NE-12).

b) Nafarroako naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legetik, Larrako Natur Erresebaren (NE-12) babespeneko eremu periferikoaren mugapena, eranskinean jasotakoa.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren arauzko xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, herritarrek interes sozialeko “beste xedeetarako” edo eliza katolikorako bideratzen duten kuota osoaren erabilerari buruzkoa

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko jabeldura aurkeztu zuen: “Jabeldura, herritarrek interes sozialeko “beste xedeetarako” edo eliza katolikorako bideratzen duten kuota osoaren erabilerari buruzkoa”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 4an egindako bilkuran, aipatu jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu du, presako izaeraz zeren eta uste baitugu gai hau aurrekontuei buruzko datorren eztabaida baino lehen argitu behar dela, jakin nahi baitugu Nafarroako Gobernuak benetan zer egiten duen interes sozialeko “beste xedeetarako” edo eliza katolikorako erabiltzea herritarrek erabakitzen duten PFEZaren kuota orokorraren % 0,5239rekin.

Jabelduraren azalpena

Datozen asteetan, Nafarroako Parlamentuan Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua eta 2003. urteko ekitaldirako Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatuko dira; horrenbestez, beste behin, gure komunitateko herritarrek jakin nahiko dute Nafarroako Ogasunari ordaintzen dioten diruarekin administrazioak zer egiten duen. Gai honek, politika orokorrekoa dena zalan-tzarik gabe, era guztietako argipenak behar ditu, jendeak jakin behar baitu bere zergekin benetan zer egiten den.

Hori dela eta, garrantzitsua dirudi jakitea Nafarroako Ogasunak zer egiten duen interes sozialeko “beste xede batzuetarako” edo eliza katolikorako erabiltzea herritarrek erabakitzen duten PFEZaren kuota orokorraren % 0,5239rekin; izan ere, talde sozialistak uste du Nafarroako Gobernuak ez duela ehuneko hori erabiltzen herritarrek errentaren aitortpena egiterakoan erabakitzen duten horretarako, eta zergadun gehienek, gure ustez, horren berririk ez dute.

Duela zenbait urtetik hona, 1988rako Estatuko Aurrekontu Orokorretan aukera horretatik heldu diren funtsen osatzea zela eta, Nafarroako Gobernuak, errentaren aitortpenean, honakoa adieraztea eskatzen digu herritarroi: “Nire kuota orokorretik 100eko 0,5239 helburu honetarako izatea nahi dut: Eliza Katolikoaren sustengurako laguntza” edo “Nire kuota orokorretik 100eko 0,5239 helburu honetarako izatea nahi dut: Interes sozialeko beste xede batzuetarako”, edo bietarako, dirudie-nez zergadunaren borondatea zein den ez baitu inongo baliorik Nafarroako Gobernuarentzat, ehuneko horrekin nahi duena eginen baitu.

Hartara, bere zergen zati bat xede jakin batzuetarako bideratzeko zergadunak aukera duen zerga bakarrarekin, Espainiako Estatuaren gainerakoan ez bezala, Nafarroan gertatzen da erabaki horrek inongo baliorik ez duela Nafarroako Gobernuarentzat, zeren eta dirua beretzat hartu eta nahi duenerako erabiltzen baitu.

Egoera bidegabe hori jada Kontuen Ganbarak planteatu du 2001. urteko Nafarroako Kontuei buruzko txostenean; hori dela eta, presakoa dirudi egoera horri konponbidea ematea, herritarren eskariak benetako balioa izan dezaten, haien zergetakako diruaren atal bat xede jakin baterako erabiliz.

Hori dela eta Nafarroako Gobernuari mozio bat aurkeztu baino lehen, hurrengo hauteskundeetan oraingo egoera konpon dezan, errealitatea ezagu-

tu nahi dugu, eta horretarako ondoko jabeldura aurkeztu diogu gobernuari.

- Egia al da Nafarroako Gobernuak ez duela PFEZaren kuota orokorraren % 0,5239 herritarrek errentaren aitopenekeo inprimakian adierazten duten xederako erabiltzen, eta PFEZaren dirusarreretako ehuneko hori baliabide publiko orokorretara bideratzen dela?

- Ba al du Nafarroako Gobernuak egoera horri konponbidea emateko asmorik? Ba al du Nafarroako Gobernuak egoera horri konponbidea emateko asmorik? Beteko al ditu herritarrek adierazitako desioak, halako moduan non Nafarroako

GKEek diru hori jasoko duten elkartasun programetan erabiltzeko?

- Ba al du Nafarroako Gobernuak aurreikusirik aurrekontu-arauen neurri osagarriren bat zergadunen arlo honetan duten borondatea bete dadin, hartara dirusarrera horiek bideratuz behar handiena duten pertsonaei (adineko pertsonak, minusbaliatu fisikoak, psikikoak eta sentsorialak, drogazaleak, emakumeak, haurrak, etorkinak eta abar) horiek baitira funts horietaz baliatu beharko liratekeenak?

Iruñean, 2002ko urriaren 31n

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa premiatzen da Aitzoingo kuarteleko tiro-poligonoa itxi dezan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa premiatzen da Aitzoingo kuarteleko tiro-poligonoa itxi dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lurraldaren Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordean eztabaidatzeko.

Urriaren 28an sutea izan da berriz ere Ezkaba mendian, eta lau hektarea eta erdi haritz eta arte

erraustu ditu, eta hektarea eta erdi sastraka eta belar. Lehorreko armadak tiro-eremua du leku horretan, eta, oraingoan ere, maniobra militarrik izan ziren, dirudienez, sutea piztu zutenak.

Gogoratu beharra dago ezen abuztuaren 24an 100 hektarea baino gehiago erre zirela Ezkaba mendian; hain zuzen ere, Aitzoingo kuartelak mendi horretan duen tiro-eremuan maniobra militarrik egiten ari zirela izandako zuhurtziagabeberia baten ondorioz.

Horrela, Iruñerriko biztanleentzako aisia-gune horretan kalte larria eragin da eta urteak beharko dira kalte hori konpontzeko; gune hori, gainera, Iruñearentzako eta Iruñerriarentzako aisialdirako naturgune izendatzea nahi da.

Harrigarria da Nafarroako populazio kopuru handiena biltzen den leku batetik hain gertu dagoen aisia-gune batean tiro-eremu militar bat egotea; horrela, zentzuzkoa da egun erabiltzen den tiro poligonoa ixtea, zuhurtasunaren sen gutxienekoak hala agintzen duelako, ingurumen-balioak zaindu egin behar direlako eta leku hori aisia-gune gisa erabiltzen dutenek lasaitasunez erabili behar dutelako. Horixe da Ezkaba mendiaren inguruko toki entitateetako arduradunek eskatu izan dutena.

Hori dela-eta, IUN-NEBK ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. 1. Nafarroako Parlamentuak Defentsa Ministerioa premiatzen du berehala itxi dezan Aitzoaingo kuartelak Ezkaba mendian duen tiro-eremua.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Defentsa Ministerioari eska diezaion Ezkaba mendiko tiro poligonoa itxi dezan.

3. Erabaki hau hurrengoei igorriko zaie:

– Gobernu zentralerako Defentsa Ministerioari.
– Nafarroako Gobernuak Ingurumen Departamentuari.

– Berribeiteko Udalari.

Iruñean, 2002ko urriaren 29an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Aitzoaingo tiro-eremua desagertarazteko urratsak eman ditzan

FORU PARLAMENTARI JOXE PERNANDO BARRENA ARZA, MARTIN ARBIZU GOÑI, IGOR ARROYO LEATXE, SHANTI KIROGA ASTIZ, AURKENE ORTIZ EGIZABAL, MARINÉ PUEYO DANSO ETA FÉLIX PUYO REBOLLO JAUN-ANDREEK AURKEZTUA

Foru parlamentari Joxe Pernando Barrena Arza, Martín Arbizu Goñi, Igor Arroyo Leatxe, Shanti Kiroga Astiz, Aurkene Ortiz Egizabal, Mariné Pueyo Danso eta Félix Puyo Rebollo jaun-andreek ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Aitzoaingo tiro-eremua desagertarazteko urratsak eman ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lurraldaren Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztzen ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Askotariko Taldeari atxikitako foru parlamentari independentista Pernando Barrena Arza, Martín Arbizu Goñi, Igor Arroyo Leatxe, Shanti Kiroga Astiz, Aurkene Ortiz Egizabal, Mariné Pueyo Danso eta Félix José Puyo Rebollo jaun-andreek, Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioen azalpena

2000ko abuztuaren 24an sute batek Ezkaba mendiko mendebaldeko hegala kiskali zuen. Geroan egiaztatu ahal izan zen 102 hektarea erre zituen sute hori Aitzoaingo tiro-eremu militarren erabilera arduragabeak sortu zuela. Atzo berriz ere, beste sute batek, txikiagoa betiere, 6 hektarea inguru erre zituen, eta itxura guztien arabera haren arrazoiak lehengo berak izan ziren.

Tamalez mendiaren zati horretan behin eta berriz horrelako suteak gertatu dira azken urte hauetan, eta atzean beti protagonista berak egon dira: militar espainiarrak, eta beti egoera beretan: militar horiek mendi honetako mendebaldeko hegaleko tiro-eremuan egiten dituzten praktikak. Izan ere, jada 1985ean, sute bat gertatu baitzen, oraindik ere handiagoa, eta sekula ezin izan da hari buruz ezer ere jakin. Eta badira, gainera, beste bi sute txiki, bertako auzoek gogoratzen dituztenak, iritzi publikora iritsi ez direnak ez zirelako handiegiak egin. Hori guztia, berriz diogu, protagonista berekin eta egoera beretan.

Atzo gertatutakoa ikusirik, berriz ere beharrezkoa da azpimarratzea oihan baten ondoan tiro-eremu bat izatea ingurumenaren ikuspuntutik arduragabekeria argia dela, eta arriskugarri gertatzen dela bertako biztanleentzat eta Ezkaba mendiaz gozaten duten pertsona guztientzat. Horietako asko eta askok, milaka, joan den igandean Ezkaba mendia aisiarako eremu gisa antolatzea aldarrikatu zuten. Ordu gutxi batzuk geroago, beste sute batek Iruñerriko ondare naturala den mendiaren zati bat suntsitu zuen.

Ez da lehenbiziko aldia, ezta ere, tiro-eremu horren presentziak ukituriko toki entitateek hura

desagertzea eskatu dutena, eta hala islatzen da, baita ere, udalaren hirigintza-arauetan. Iruñerriko eskualde-arauek Ezkaba mendia eskualdeko parke handi bat izatea aurreikusten dute. Guztiz logikoa da, beraz, jolasari eta ingurumenari loturiko erabilera mota hori eta tiro-eremuak bertan jarraitzea bateraezinak direla. Izan ere, Nafarroako Parlamentuak ere, 2000ko azaroaren 21ean eginiko bilkuran, erabaki bat onetsi zuen berehalakoan emateko amaiera Ezkaba mendian su-armekin eginiko maniobra militarrei. Espainiako agintari militarrek, ordea, entzungor egin diote erabaki horri, eta zalantzarik gabe horrek errespetu falta argia eta mespretxua erakusten ditu Biltzarreko jarreretik eta inguruko auzoek adierazitako borondatearekiko.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu parlamentariook, onets dadin:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala behar diren urratsak eman ditzan Aitzoaingo tiro-eremua desagerrarazteko, arrisku argia baitago inguruko biztanleentzat eta Ezkaba mendiko ingurumeneren osotasunerako.

2. Halaber, Nafarroako Parlamentuak exijitzen du kuartela desagerrarazten ez den bitartean Ezkaba mendiko maniobra militarrek berehala buka daitezten.

Iruñean, 2002ko urriaren 29an

Foru parlamentariak: Fernando Barrena Arza, Martín Arbizu Goñi, Igor Arroyo Leatxe, Shanti Kiroga Astiz, Aurkene Ortiz Egizabal, Mariné Pueyo Danso eta Félix José Puyo Rebollo jaunandreak.

Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa premiatzen da Aitzoaingo kuartel militarra kentzeko

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa premiatzen da Aitzoaingo kuartel militarra kentzeko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lurraldaren Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Askotariko Parlamentuko Taldeko eledun Milagros Rubio Salvatierrak, ondoko mozioa tramitatzea eskatzen du, Ingurumen Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioen azalpena

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak, 2000ko azaroaren 21ean eginiko bilkuran, ondoko adostasun puntuak bilzen dituen erabakia onetsi zuen:

1. Nafarroako Parlamentuak Defentsa Ministerioa premiatzen du berehala utz diezaion Ezkaba mendian su-armekin maniobra militarrek egiteari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Defentsa Ministerioari eska diezaion Ezkaba mendian su-armekin maniobra militarrek egiteari utz diezaion.

Behin betiko txostenak ezartzen duena oraindik ere dakigun arren, badirudi atzo, astelehenez, 2002ko urriaren 29an, gertaturiko sua (haren ondorioz, lau hektarea eta erdi haritz eta arte eta hektarea eta erdi sastraka eta belar erre ziren) armadak aipatu tiro eremuan su errealaz eginiko maniobra batzuegatik sortu zela. Diario de Noticias egunkariak dioenaren arabera, "maniobren ardura zuen ofizialak egunkari horri jakinarazi zion sugarrak jaurtigai marratzaile baten errebotearen ondorioz hasi zirela... horren zati bat mendi hegalean jo baitzuen".

Hala bada, Defentsa Ministerioak ez du biltzar honetako gehiengoaren borondatea errespetatu, eta Nafarroako Gobernuak ere ez du arrakastarik izan –ez dakigu saiatu ere egin den– arma errelaiei buruz maniobra militarrek egiteari uzteko eskatu behar baitzion.

Halaber, adierazi beharrekoa da kasualitatea izan dela sute hau Ezkaba mendira urtero egiten den martxaren biharamunean gertatzea, hain zuzen ere 3.200 pertsona inguruk mendi hori egoera hobekoan jar dadin eskatu eta “Iruñerriko mendirik enblematikoena” zaintzeko administrazioak duen utzikeria salatu eta biharamunean.

Hori guztia dela eta, gure ustez Aitzoaingo egungo kuartel militarrek eta haren tiro eremuak

bertan jarraitzea etengabeko arrisku bat da ingurumenerako eta inguruko herritarrentzat ere, eta, horrenbestez, ondoko erabaki proposamenak aurkeztu ditugu:

1. Parlamentu honek Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak 2000ko azaroaren 21ean onetsitako erabakia berresten du.

2. Nafarroako Parlamentuak Defentsa Ministerioa premiatzen du Aitzoaingo kuartel militarra deusezta dezan.

Iruñean, 2002ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

F saila:
GALDERAK

Galdera, erresonantzia magnetikoa egiteko itxaron zerrendei buruzkoa*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak erresonantzia magnetikoa egiteko itxaron zerrendei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osoko Bilkuran ahozko erantzuna jasotzeko.

Duela zenbait egun jakin genuen Nafarroako Ospitalean erresonantzia magnetikoen zerbitzuko arratsaldeko txanda kendua zutela, dirudienez itxaron zerrendarik ez zegoelako. Hala eta guztiz ere, zerbitzua kentzea arratsaldeko txandaren ardura duen sendagileak amatasun baja hartzearekin batera heldu da. Egoera horren aurrean hauexek dira gure galderak:

1. Solchaga Anbulatorioan, Nafarroako Ospitalean eta Bideko Ama Birjina Ospitalean erreso-

nantzia magnetikoa egiteko dagoen itxaron zerrenda.

2. - Lehenbiziko erantzunari loturik, jakin nahi dugu gaur den egunean sendagile batek, eman dezagun, gaixo baten belaunaren erresonantzia eskatzen badu gaixoak zenbat denbora itxaron beharko duen gehienez.

3. - Zentro bakoitzean erresonantziaren bitartez egiten diren azterketen zerrenda.

4. - Zein lan txanda egiten dira erresonantzia zerbitzuetan aipatu hiru osasun zentroetan?

5. - Solchaga Anbulatorioan itxaron zerrendarik egonez gero, bertako langileek agertu duten bezala, ez al litzateke komenigarria izanen baliabide publikoei erabilerarik onena eta gaixoei arreta hobea ematea Nafarroako Ospitalera bidaliz?

6. - Egunero zer egiten du aipatu hiru osasun zentroetako bakoitzean erresonantzia magnetikoen zerbitzuak? Zenbat denbora du esleiturik froga diagnostiko bakoitzeko?

7. - Zergatik erabaki da orain Nafarroako Ospitaleko erresonantzia magnetikoen zerbitzuko arratsaldeko txanda kentzea, dirudienez zenbait hilabetez gure erkidegoan dauden hiru aparatuak batera funtzionatzen egon ondoren? Zein dira arratsaldeko txanda hori kentzeko benetako arrazoiak? Ba al du zerikusirik osasun gastua murriztearekin?

Iruñean, 2002ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, hedabideetan euskara erabiltzeko laguntzetarako deialdi publikoa ez egiteari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI FÉLIX PUYO REBOLLO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix Puyo Rebollo jaunak hedabideetan euskara erabiltzeko laguntzetarako deialdi publikoa ez egiteari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Foru parlamentari independentista Félix Puyo Rebollo, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak urtero egiten du deialdi bat Nafarroako hedabideetan –prentsan, irratan eta telebistan– euskara erabiltzeko laguntzak emateko.

Aurreko deialdia Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak uztailaren 4an emaniko ebazpenaren bidez onetsi zen. Hain zuzen ere, ebazpena onestea eta argitaratzea hainbeste atzeratu izanak, bai eta deialdian ezarritako epeak ere, akats handi samarrak eragin zituzten espedientearen tramitazioan. Horietako batzuk epaitegietara ere ailegatu ziren eta, horren ondorioz, Pegenaute jaunak abenduaren 12an deklaratu beharko du ustezko prebikazio delitua dela-eta haren kontra aurkeztutako bi salaketa-rengatik.

Horren guztiaren aurrean, foru parlamentari hau harririk dago ikusirik gaur arte behintzat ez dela argitaratu Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurtengo laguntzen deialdia, are gehiago kontuan harturik, berriz diot, aurreko deialdian izaniko arazoak.

Horrenbestez, hauxe da parlamentari honen galdera:

1. Zergatik ez da gaur arte egin Nafarroako hedabideetan –prentsan, irratan eta telebistan– euskara erabiltzeko laguntzen deialdi publikoa?

Iruñean, 2002ko urriaren 30ean

Foru parlamentari: Félix Puyo Rebollo

Galdera, euskarari buruzko Foru Legeak definituriko lurralde-eremuen arabera, errepideetako kontserbazio programen barruan eginiko jarduketei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI FÉLIX PUYO REBOLLO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix Puyo Rebollo jaunak euskarari buruzko Foru Legeak definituriko lurralde-eremuen arabera, errepideetako kontserbazio programen barruan eginiko jarduketei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Foru parlamentari independentista Félix Puyo Rebollo, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Parlamentari honek egindako galdera bati Nafarroako Gobernuak berriki emandako erantzunean, Herrilan, Garraio eta Telekomunikazio kontseilariak adierazi zuen bideseinaleztapenaren arloko jarduketetan izaniko kostu gehigarria, behin 372/2000 Foru Dekretua indarrean sartu eta eremu mistoan euskararen erabilerari buruzko arauak aplikatzeko jarduketa plana abian jarri zenetik, hutsa izan zela. Kontseilariaren hitzetan, jarduketa horiek kontserbazio programen barruan gauzatu dira, eta errepideetako seinaleen ohiko berritzea eta egin berri diren errepideetan seinaleak ezartzea baizik ez dira izan.

Baina kontseilariak galdetutako gaiekin ezikusiena egin eta haien interpretazio interesatua egiten du, zeren eta, lehenbizi, parlamentari honek z baitzuen kostu gehigarriaz hitz egin, eta, bigarrenik, kontseilariak ez baitu igorri errotulazioan izaniko aldaketa guzti-guztien zerrenda, ez eta jarduketa bakoitzerako kalkulaturiko kostua ere.

Hori guztia dela eta, foru parlamentari honek, Gobernuaren jarduketei buruzko informazio biltzeko parlamentu-lanean bere dituen eskubideez baliatu nahi baitu, eta Gobernuak informazio hori ematera derrigortuta dagoenez, ondoko gaiak berriaz ezagutu nahi ditu, eta kontseilariari eskatzen dio eskatutakoei hitzez hitz erantzuteko:

1. Euskarari buruzko Foru Legean eremu mistotzat eta eremu euskalduntzat jotako lurralde-eremuen arabera, kontserbazio programen barruan errepideetako seinaleak berritu eta egin berritako errepideetan seinaleak ezartzeko eginitako jarduketa guzti-guztien zerrenda, 372/2000 Foru Dekretuak indarra hartu zuenetik gaur artekoa.

2. Zehazki, jarduketa bakoitzari buruzko ondoko alderdiak ezagutu nahi ditut:

- Egindako jarduketa.
- Jarduketa hori justifikatzeko arrazoiak: seinaleen egoera, errotulazio berria eta abar.
- Jarduketaren kostu ekonomikoa.

Iruñean, 2002ko urriaren 30ean

Foru parlamentari: Félix Puyo Rebollo

Galdera, Navarra de Gestión para la Administración (NGA) enpresa sortzeari eta TRACASA saltzeari buruzkoa

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Navarra de Gestión para la Administración (NGA) enpresa sortzeari eta TRACASA saltzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Navarra de Gestión para la

Administración (NGA) izeneko enpresa bat sortzeari buruz eta Tracasako akzioen zati bat enpresa pribatuei saldu izanari buruz. Idatzizko erantzuna eskatzen dugu.

Galderen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak jakin izan du Nafarroako Gobernuak "Navarra de Gestión para la Administración" izeneko enpresa bat sortu nahi duela; enpresa horrek Gobernuaren zuzeneko kapitala eta Tracasako akzioen ehuneko 100 du; halaber, enpresa horren akzioen zati bat saltzeko behar diren trami-teak hastea erabaki zuen Gobernuak, 2002ko urriaren 28an.

Informazio horren aurrean, ondoko galderak aurkeztu ditugu:

1. Tracasako akzioen zati bat saltzeko arrazoiak.

2. Aipatu enpresa sortu ondoren, nola geratuko dira banaturik akzioak aipatu enpresa sortu ondoren?

3. Enpresako langileen eskubide guztietan subrogatuko al dira?

4. Nola aplikatuko da foru legez aitorturiko 35 orduko lanaldia, enpresaren balizko egoera berrian?

Iruñean, 2002ko urriaren 31n

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Nafarroako familiak babesteko politikari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNÁNDEZ ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak Nafarroako familiak babesteko politikari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foro parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren indarrez, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak idatziz erantzun dezan, Nafarroako familiak babesteko politikari buruzko zenbait kontu ezagutu nahi baititugu.

Nafarroako Parlamentuan Gobernuak familia nafarrei ematen dien arretari buruz izan diren eztabadaida ugarien ondotik, 2001eta 2002ko urteei buruzko ondoko datuak eduki nahi ditugu:

– Zaharrentzako egoitzetako plaza bakoitzeko prezioa.

– Eguneko zentroetako plaza bakoitzeko prezioa.

– Etxebizitza babestuetako plaza bakoitzeko prezioa.

– 65 urte baino gehiago dituzten herritarrentzat zenbat plaza dauden zaharrentzako egoitzetan: ehunekoa.

– 65 urte baino gehiago dituzten herritarrentzat zenbat plaza dauden eguneko zentroetan: ehunekoa.

– 65 urte baino gehiago dituzten herritarretatik zenbatek duen etxebizitza babestuetan plazarik: ehunekoa.

– 65 urte baino gehiago dituzten herritarretatik zenbatek duen telelaguntza zerbitzua: ehunekoa.

– 65 urte baino gehiago dituzten herritarrentzat zenbat erretiratuen klub dauden: ehunekoa.

– 65 urte baino gehiago dituzten herritarretatik zenbatek duen etxez etxeko laguntza: ehunekoa.

– Bere jarduerarako lokal bat daukaten erretiratuen klubak kopurua, eta 65 urte baino gehiago dituzten herritarren beharrezkoak noraino betetzen dituzten.

– Gizarte Ongizate Departamentuko Adinekoen Kontseiluarekin izaniko bilerak; haietan aztertutako gaiak, kontseiluko kideak.

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak
Helbidea
Telefonoa *Hiria*
P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	